

Elkarrizketa  
politikoak

ATXONDO



**"Plan Orokorra gauzatzea, Barraskiko arazoa desblokeatzea eta Apatako plazaren bigarren fasea martxan ipintzea dira erronketariko batzuk"**

**Atxondo** • Indar aldaketa gertatu da Atxondoko Udalean. Legegintzaldi honetan, EH Bilduko Eneritz Agirre da alkatea. Udalaren lan ildoak azaldu dizkio ANBOTOri. • **2-3**

**Sanfaustoak  
pil-pilean**



**Durango** • Txosnetako eta udaletxeko txupinazoa jaurtita, San Fausto jaiak lehenengo asteburuaren atarian daude. ETS, Skabidean eta Ibil Bedi taldeez gainera, ohiko ekitaldiak izango dira; tartean, paella lehiaketak, bai Landako Guñean baita San Fauston ere. • **4**



**Ama-alaben erreleboa, dendak loratzen jarraitu dezan**

**Berriz** • Amaia Zabala laster jubilatuko denez gero, bere alaba Ane Etxeitak hartuko du haren lekukoa Kimu lore-dendan. • **10**



**"Lehen kirola egiten nuen, orain entrenatu egiten naiz"**

**Kirola** • Oihane Unzaluk oso denboraldi ona egin du. Bigarren geratu da mendi lasterketan Euskal Herriko kopan. Zaldua Trailen garaipena eskuratu zuen eta Sorginen Lasterketan podiumera igo zen. • **27**





**Eneritz Agirre Armendia**  
Atxondoko alkatea  
ATXONDO | 1983

## “Atxondon dugun erronkarik garrantzitsuena herria berpiztea da”

Eneritz Agirre Atxondoko alkatea udalgintzan dabil lehenengoz; esperientzia "aberasgarria" izaten ari dela dio. Lantalde berriagaz hurrengo lau urteetarako ildoak finkatzen ari dira

### ATXONDO • JONE GUENETXEA

**Atxondoko Udalean indar aldaketa gertatu zen maiatzaren 28ko hauteskundeetan. EH Bilduko Eneritz Agirrek hartu zuen aginte makila, Xabier Azkara jeltzalearen eskutik. Atxondok hurrengo urteetan izango dituen erronkez berba egin du alkate berriak.**

### Zelan daramazu alkate kargua maila pertsonalean?

Oso ondo daramat. Egundoko esperientzia izaten ari da niretzat. Atxondo beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera ematen dit eta herritarrekiko hartu-eman ona izaten ari da. Benetan aberasgarria izaten ari da niretzat.

### Zelan doaz aurrekontuak?

Gauza berria da niretzat eta ikasgai latza izaten ari da. Laguntasun handia daukat inguruan, eta ziur nago lan txukuna egingo dugula. Lehenengo urte hau hankak lurrean ipintzeko garrantzitsua dela uste dut, baina baita egunetik egunera gauzak egiteko momentua ere.

### Zeintzuk dira lau urte hauetarako proiektu eta erronka nagusiak?

Hainbat dira proiektu eta erronka horiek, baina garrantzitsuena herria berpiztea da. Horretan gabilta, eta herritarrengandik jasotzen gabilta babesa eta beharra egiteko gogoia txalogarria da. Proiektu eta erronka batzuk aipatzekotan,

hauetxek: Plan Orokorra legegintzaldi honetan gauzatzea, Barraskiko auzoan daukagun arazoa desblokeatzea, eta Apatako plazaren bigarren fasea aurrera eramatea; hau da peatonalizatzea eta topagune bihurtzea. Era berean, gure auzo eta auzotarrei behar duten arreta eta laguntza ematea, eta abar.

### AHTaren inguruan zein interpretazio egiten duzue?

Azken 4 urteetan asko aurreratu dituzte lanak. Hemendik aurrera, gu gainean egongo gara, hartu-eman zuzena daukagu bertako kontratistekin, eta edozein mugimendu sumatu edo ikusten dugunean telefono dei bat egiten dugu azalpenak

eta informazioa eskatzeko. Gure lanik garrantzitsuena herritarrak babestea da, eta horretan gabilta.

### Zer gertatzen da bidegorriagaz bazterbiderik ez dagoen tartean?

Bidegorria itxita dago aste bitartean, obren lanengaitik, baina kontratistekin hartu-emanen gaudenez, guztiz ez iztea eta asteburuetan zabalik mantentzea lortu dugu. Bazterbidearen kontua Bizkaiko Foru Aldundiarena da, bide hori berea da eta. Hainbat proposamen pasatu diogu alternatiba legez zati horretan egiteko, baina eman diguten erantzuna oso eskasa izan da. Behin-behineko espalo bat egitea eta semaforoz kudeatzea zen alternatiba horietariko bat, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso. Zati hori guzti hori Aldundiarena da eta guk ezer gutxi egin dezakegu bertatik igarotzen diren ibiltarien babesa bermatzeko. Hala ere, borrokan jarraituko dugu babes hori lortzeko.

### Aurreko legegintzaldian Harrera Taldeak itxialdia egin zuen udaletxeko atarian. Zein da migratzaileen egoera gaur egun? Zein interpretazio egiten duzue?

Harrera Taldeak Axpen du bere etxea, eta udalak babestu egingo

du. Oso hartu-eman ona eta zuzena dugu elkarrengaz, eta gogo eta asmo sendoa dugu gauzak aurrera eramateko. Hitzarmen baten lanketan gabilta eta datorren urtera begira etxebizitzan obra batzuk egiteko asmoa dugu.

### Jantokiko sukaldeak ere zeresan handia eman du. Zein egoeratan dago proiektu hori?

Bai, zeresan handia eman du herrian. Asko borrokatu da sukalde bat izateko, eta lan horiek guztiek bere emaitzak izaten ari dira. Sukaldeko obrak oso aurreratuta daude dagoeneko. Oraindik jatekoa kozinatuta ekartzen dute, baina bertan kozinatzeko aukera egongo da laster. Obra horiekin batera hainbat gela txukundu eta egin dira, eta horiek ere euren forma hartzen dabilta. Dena ondo badoa, urri amaierarako amaituta egotea aurreikusten dugu.

### Igerilekuan defizientziak zeuden. Zein da egoera gaur egun?

Igerilekuan hainbat berrikuntza egin zen uda aurretik, eta oso txukunak izan dira. Pistina inguruko zoruak ez du labantzen, eta horrek asko hobetu du bertaratzen den jendearen segurtasuna. Datorren urtera begira obra gehiago egiteko beharrez dago, batez ere tabernan. Aurpegi garbiketa bat egiteko premia dauka eta horretan gabilta.

**Urkuzun gizarte etxe bat egiteko ideia dugu. Lanketa eta prozesu hori guzti hori aurrera eramateko, herriari berba eman behar zaio**

### Zeintzuk dira beharrezkoak bai herrigunean bai auzoetan? Auzo batzarretan zer ondorio ateratu duzue?

Uda sasoiaren herri bilerak egin genituen Axpeko, Santixako eta Arrazolako auzotarrekin, eta irailean Apatako herritarrekin. Oso harrera ona izan genuen eta etorri ziren herritarrak oso gustura sentitu ziren. Parte hartzaile, ideia eta proposamen asko izan genituen, eta laguntzeko prest agertu ziren. Auzoak berpiztu eta txukun mantentzeko erabakia eta konpromisoa transmititu genizkien. Denon artean, gura dugun Atxondo eraikitze bideari ekingo diogu, eta horrela jarraitzeko asmoa eta gogoia ditugu.

### Urkuzun kultur etxea egiteko proiektua planteatu zuen EAJK. EH Bilduk, bestalde, gizarte etxea aipatzen du hauteskunde programan. Proiektu hori zertan da?

Aurreko udal taldeak Estatuko diru laguntza bat eskatu zuen, baina guk bertan behera utzi behar izan dugu, diru faltagaitik. Izan ere, 1,2



milioi euroko proiektua da, eta diru laguntza 600.000 eurokoa zen. Beraz, udalak beste erdia finantzatu behar zuen. Ahaleginduko gara diru laguntza hori berriro eskatzen, baina udalaren aldetik aurreikuspen ekonomiko bategaz. Gizarte etxe bat egiteko ideiaz jarraitzen dugu. Lanketa eta prozesu hori guzti hori aurrera eramateko, herriari berba eman behar zaio. Orain urte batzuk lanketa sakon bat egin zen eta proiektu zehatz eta polit bat

herria berpizteko eta herritarrak animatzeko. Gure aldetik babes osoa izango dute eta dagoeneko elkarlanean gabiltza hainbat ekintzatan. Kultur mahai hori herriko hainbat talde eta herritarrek osatzen dute eta oso ideia polit eta interesgarriak lortzen ari dira Atxondoko herriarentzat eta herritarrentzat.

#### **Badago aurreikuspenik Markoida ingururako?**

Oraingoz, informazioa batzen gabiltza. Oso zonalde garrantzitsua da Atxondoko herriarentzat, eta lanketa sakon bat egiten gabiltza. Bertan dauden aukera guztiak aztertzen eta herriarentzat irtenbiderik onena topatzen gabiltza.

#### **Jubilatuen etxeak itxita jarraitzen du. Baduzue zabaltzeko asmorik?**

Aurreko udal taldeak lizitazioa atera zuen eta pertsona bati esleitu zitzaion. Baina lizitazioa eskuratu zuen pertsona horrek kontratua bertan behera uzteko prozesuari ekin zion eta gu bide horri jarraitzen gabiltza. Hemen burokrazia lanak astiro doaz, baina gure asmoa eta nahia jubilatuena taberna berriro zabaltzea da. Berriro lizitazioa ateratzea dugu helburu. Gainera, jakitun gaude badaudela taberna hori hartzeko interesatuta dauden pertsonak.



**Harrera Taldeak Axpen du bere etxea, eta udalak babestu egingo du. Oso hartu-eman ona eta zuzena dugu eta gauzak aurrera eramateko gogoia dugu**

irten zen, baina garrantzitsu eta beharrezko ikusten dugu Plan Orokorren eraketa martxan dagoen une honetan arnasa hartu eta berriro lanketa bat egitea.

#### **Herritar batzuek kultur mahaia sortu dute. Zer deritzo udalak?**

Udalak oso aberasgarri ikusten du kultur mahaiaren eraketa. Oso aukera ona ikusten dugu

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean: [www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta



# "Durangoko jaiak ezin dira txosnarik barik ulertu; gauean, erreka jaitsieran zein paella lehiaketan, herritarrak batzeko tokia dira txosnak"

Txosnetako kideak prest daude lehenengo astebururako. Lide Azuetagaz, Unai Ruzegaz eta Asier Bilbaogaz batu gara

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Muntatu, hornitzaileei harrera egin, hozkailuak edariz bete. Garbitu, diru xehea gorde eta hurrengo egunerako kanbioez akordatu. Txandak antolatu, txandak egin, beste txanda bat egin. Eta hori guzti hori biharamunean txosna barruetan egoten den alkohol lurinari aurre eginda. Txosnetan lanean dabiltzanentzat zoramerako egunak izaten dira hauek. Gozamenerakoak bezainbeste. Eta Durangoko kideak gogotsu daude jaiaren aurpegi biak, parranda eta ardura, bateratzeko. Ia txanda guztiak antolatuta dituzte. Baina hori bai, onartu dute azkenaldian gatxa dela tabernari lanetarako boluntarioak topatzea. "Azken urteotatik hona arazoak izaten gabiltza txandak lotzeko, pandemiatik hona gutxi gorabehera", aitortu du Asier Bilbao txosnaguneko kideak. "Pandemiaren eraginez, belaunaldi salto bat egon da, eta arrazoi horregaitik badago adin tarte bat ez dena txosnetan lan egitera etorri", azaldu

du Lide Azuetak. Unai Ruz txosna-kidea errealitate horren lekuko da. "Militatu dezakezu, baina ardurak hartzean zailtasunak daude. Txandak bete arren, ardurak daude muntaketan zein egitarauaren prestaketan", gehitu du Azuetak.

Txosnek erronka hori dute aurretik. Jaiaren gozamen lan konprometituagaz orekatzea. Hainbat elkarte eta mugimenduk lan horri eskerrak ateratzen dutelako gero urte osoan funtzionatu ahal izateko dirua. Argitu dutenez, egoera ez da Durangora mugatzen: "Zerbait orokorra da", diote. "Eta joera aldatzen ez bada, urte batzuk barru txandak bete ezinda egongo garela koan gaude", ohartarazi du Bilbao. "Ardurak hartu arren, hemen ondo pasatzen dugu. Oso giro ona dago eragileen artean. Jende desberdina ezagutzen duzu, elkarte desberdinetako jendeagaz zaude", dio.

Hiru kideek argi daukate auzolana dela txosnek beste urte askoan irauteko modua: "Durangoko jaiak ezin direlako txosnagune-



Irati Horna, Unai Ruz, Maixa Villanueva, Lide Azueta, Asier Bilbao eta Santos Soto.

rik barik irudikatu. Egunez zein gauez, paella lehiaketak direla, erreka jaitsiera dela, gaua dela, herritar guztiak batzeko toki bat delako hau. Durangoko jaiak txosnagunerik barik? Horiek ez dira jaiak". Gonbitea eginda dago, bai ardurak hartzeko eta baita parranda egiteko ere.

## Eztabaida ordutegiagaitik

Txosnaguneko kideek gogor kritikatu dute Durangoko Udalak ipiniriko ordutegia. "Inoiz eduki dugun ordutegirik murriztena ezarri digu", azaldu dute. Jaiaren aurretik edizioa ixterako, txosnagunea eta udala akordio batera heldu barik zeuden. Txosnaguneko kartelen

inguruan udalak harturiko jarrera ere salatu dute. Ez dute onzat ematen garbiketako langileei kartelak kentzeko agindua eman izana. Bestalde, txosnak kexu dira udalak soinua mugatzeko darabilen sistemaren aurrean. Gauzak horrela, protesta lez, Pantxikek ez du parte hartu udalaren txupinazoan.

## ETS, Ibil Bedi eta Skabidean musika taldeek girotuko dute jaietako lehenengo asteburua

Landako Guneko eta San Faustoko paella lehiaketek giro herrikoia sortuko dute zapatuan

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Txosnetako eta udaletxeko txapligo hotsek kaleko zarraparrari eman diote lekukoa. Jaietako lehenengo asteburua martxan da eta parrandan murgildu gura duenak nahikoa izango du herriko kaleetara jaitea. Topatuko du zerbait, seguru. Musikagazko kuriositatea duenak ETS talde arabarragaz edo Nafarroako Ibil Bedi zein Skabidean taldeekin gozatu ahal izango du

gaur. Lehenengoak Ezkurdin arituko dira, 23:00etan. Talde nafarrek txosnetan joko dute, 22:00etan. Eta musika barik giro herrikoia bilatzen duenak zapatuari itxaron beharko dio. Landako Guneko zein San Faustoko paella lehiaketak beti bezain jendetsuak izatea aurreikusiten dute antolatzaileek. Horrez gainera, ez dira faltako umeentzako jolasguneak eta kale animazioak. Eraso matxisten kontrako neu-

rriak ere indarrean daude. 747 459 584 telefonoak 24 orduko arreta zerbitzua eskainiko du jaiegunean, eta Landako Gunean puntu more bat ipiniriko dute, informazioa emateko. Bestalde, Itaiak etxeratze kolektiboak antolatu ditu. Barikuetan (02:00etan) eta zapatuetan (02:00etan eta 05:00etan) egingo dituzte. Urribarri kaleko 23. zenbakitik irtengo dute emakumeei etxera joaten laguntzeko.



Durangarrek jaietzeko asteburu bi dituzte aurretik.

**anboto** ▶

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2023ko urriaren 13a  
21. urtea - 952. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





Mamografia proba bat Osakidetzaren sareko erietxe batean. IREKIA

## Durangoko biztanleek Usansoloko ospitalean egin ahal izango dituzte mamografia probak

Neurri berria urriaren amaieran sartuko da indarrean. Izurritik hona, Osasun Sailak Gernika-Lumoko Gaitasun Handiko Osasun Zentrora bideratu ditu emakume durangarrak

### DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Urriaren amaieratik aurrera, Osakidetzak Galdakao-Usansoloko ospitalean hartuko ditu Bularreko Minbizia Goiz Detektatzeko Programan parte hartzen duten emakume durangarrak. Bere sasoiak, pandemia zela eta, programaren funtzionamendua Gernika-Lumoko Gaitasun Handiko Osasun Zentrora lekualdatu zuten, arreta "ahalik eta atzerapenik txikiengaz" egiteko eta "pazienteen arteko beharrezko segurtasun- eta distantzia-baldintzak" betetzeko.

Orain, Osakidetzak "behin betiko" berreskuratu ditu Galdakao hitzorduak, eta Durangoko bizilagunek ez dute Gernika-Lumora joan beharrik izango. Lekualdaketa horrek erabiltzaile askoren haserrea piztu zuen, Gernikara joateko garraio-bide konexio zuzenik ez dagoelako.

### Pozik neurriagaz

Durangoko gobernu taldeak txalotu egin du harturiko erabakia, eta esan du Osasun Sailagaz izandako batzarrean mahai gainean

zegoen gai bat zela. "Pozten gara gure eskaera bati erantzuna eman zaiolako. Hala ere, Durangon eta eskualdean gabeziak ditugu oraindino, eta sailburuagaz berba egin genuen horretaz. Gure eskaeretan aurrerapenak ikustea eta gabezia horiek konpontzen joatea espero dugu", adierazi du Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak ohar batean.

Durangoko EAJK adierazi duenez, mamografiaren lekualdaketa hau "oposiziotik lau urtean egingandako lanaren emaitza" da.

## Marian Muñoz omendu dute lurretan, 32 urtean PSE-EEko zinegotzi izan dena

Marian Muñozek 18 urte hartu zuen kargua lehenengoz, 1991. urteko ekainean. lurreta Durangotik bereizi zenetik karguan egon den zinegotzi bakarra izan da.

### IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretan Marian Muñoz omendu dute, zortzi legegalditan zinegotzi izan dena. Muñozek 18 urte hartu zuen kargua lehenengoz, 1991ko ekainean, eta lurreta Durangotik bereizi zenetik karguan egon den zinegotzi bakarra izan da. Hunkituta eta eskertuta agurtu da Alderdi Sozialistako ordezkari izandakoa. Ekitaldian, eskerrak eman zizkien familiari, urteotako udalkide guztiei, iurretare, PSE-EE Bizkaiari eta udaleko langileei. "Herriagaz batera hazi eta hobetu naizela uste dut", esan zuen. Iñaki Totorikaguena alkateak Muñozen "aparteko dedikazioa eta konpromisoa" azpimarratu zituen.



Marian Muñoz omenaldi egunean lurretako udal aretoan.

## Ibiliaz Ezagutu programak Andres Espinosa mendizalea gogoratuko du zapatuan

Aurten 120 urte betetzen dira mendizale zornotzarra jaio zela. Ibilbide bi egingo dira: 22 kilometrokoa eta 6koa



Ibiliaz Ezagutu programako aurreko edizio bateko argazkia.

### ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ibiliaz Ezagutu programaren udazkeneko edizioa bueltan da, lau ibilbide berrigaz. Lehenengo irteera zapatu honetan bertan egingo dute. Hain zuzen ere, Andres Espinosa mendizale zornotzarra jaio zela 120 urte betetzen dira aurten. Udalak ibilbide bi prestatu ditu zapaturako: 22,6 kilometroko luzea, eta familia giroan egin ahal izateko bide laburra, 6 kilometrokoa. Lehenengoa 8:00etan hasiko da, Jauregibarratik. Bigarrena 10:00etan, leku

beretik. Ibilbide laburrean zehar, txangozaleek Espinosaren bizitza eta abenturak ezagutuko dituzte, gida batek lagunduta. Hiru interpretazio mahai behatzeko aukera ere izango dute.

Programako gainerako ibilbideak Diman eta Durangaldean zehar egingo dituzte, urriaren 21ean, 28an eta azaroaren 4an. Udalak autobus zerbitzua ipiniko du etaparen irteera eta amaiera lekuetara joan-etorria egiteko. Ibilaldiotarako izena eman behar da, Zelaieta Zentroan.

## Komun publiko berri bi instalatu dituzte Zornotzan

Tolsan industrialdean ipini dute bat, eta Gure Kirolak frontoiaren ondoan bestea. 7:00-23:00 orduetara dute

### ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak komun publiko bi instalatu ditu. Tolsan industrialdean ipini du eurretari bat, eta Gure Kirolak pilotalekuaren ondoan bestea. Komunok mugikortasun urriko pertsonentzat diseinatuta daude eta automatikoki

desinfektatu eta garbitzen dira. Komunak erabilera 15 minutu baino gehiagokoa bada, atea desblokeatu egiten dira segurtasuna dela eta.

Zornotzako Udalak 187.000 euroko inbertsioa egin du komun biak ipintzeko.



Gure Kirolak frontoiaren ondoan komunak.





Aitziber González García arkeologia lanetan.

## “Lina-putzuak lurtean egiten ziren egiturak dira, lihoa beratzen ipintzeko tokiak”

Aitziber González García arkeologoa Elorrioko lina-putzuen inguruko ikerketa egin du



**Aitziber González García**

Arkeologoa

GASTEIZ | 1991

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Elorrioko Udalak eskatuta, Aitziber González García arkeologoa Elorrioko lina-putzuen inguruan ikertu du. Elorrioren 30eko hamarkadara arte erabili zituzten lina-putzuak, arropa kotoiagaz edo ehun sintetikoekin modu industrialean fabrikatzen hasi ziren arte. Ikerturikoa Iturri azaldu zuen Gonzalezek, martitzenean, urriak 10.

**Zer dira lina-putzuak?**

Lurtean egiten ziren egiturak dira. Normalean egitura biribilak ziren. Lihoa zenbait egunean beratzen ipintzeko erabiltzen zi-

ren lina-putzuak, landare zuntza eskuratzeko. Hau lortzeko, zurtoinaren kanpoko aldea usteldu egin behar da. Beraz, lihoa erreketan edo lina-putzuetan sartzen zuten. Baita landetan zabaldu ere, iruntzagaz eta euriagaz umeldu zedin. **Zergaitik dira garrantzitsuak?**

Putzu hauek etxeko ekoizpen sistema lez ulertu behar ditugu. Nahiz eta batzuetan modu industrialagoan erabili. Hala ere, guk aurkiturikoak etxeko ekoizpen sistemarako erabiltzen zirenak dira. Lihohari loturiko lana emakumeen ardura zen gehienbat, eta horregaitik pentsatu daiteke

egitura eta jarduera hauek ez direla horrenbeste ikertu.

Nire ustez, garrantzitsua da zelakoak diren jakitea. Ez dira ageriko egitura batzuk, eta, jendearen memoria kolektiboa galtzen dabilena ikusita, erraza da egitura hauek bertan behera uztea eta desagertzea.

**Elorrioko lina-putzuak ikertu dituzu. Zer aurkitu duzu?**

Iturri desberdinak erabilia aurkitu ditugun lina-putzuak dokumentatzea lortu dugu. Geolokalizatu ditugu, ondoen dauden 3Dko modeloak egin ditugu eta, gainera, putzu hauek eragindako gatazka batzuen inguruko informazioa ere jaso dugu. Hau da, lina-putzuak eta hauek sortzen zuten kutsadura. Horrez gainera, zelan erabiltzen ziren ere ikusi dugu.

Putzuen hasierako argazki bat ere aurkitu dugu eta honek etorkizunean Elorrioren ikerketa gehiago egitea ekar dezake.

**Zenbat aurkitu dituzu? Gehiago egon daitezke?**

Jose Garaizabali eskerrak bost putzu aurkitu ditugu; lehendik ezagutzen zituen. Horiez gainera, beste egitura bi ere topatu ditugu, baina hauek egiaztatzeko ditugu oraindino. Badakigu iraganean putzuak ohikoak zirela, eta normalean baserri bakoitzak bere putzua zuela. Zenbait iturriren arabera, oso ohikoa zen neskato bakoitzari, jaiotakoan, bere lur-sail zatitxoa uztea lihoa lantzeko. Beraz, aste honetako berbaldiaz lina-putzu gehiago aurkitzea espero dugu.

## Tasak eta zergak %3 igoko dituzte Elorrioren 2024an

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Urri hasieran egindako osoko bilkuran, tasak eta zergak %3 igotzea erabaki zuen Elorrioko Udalak, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin. Elkarrekin Podemosek kontrako botoa eman zuen. "Alde batetik, azken urte bietako KPIaren igoera orokorra dago, urteko %5,7tik gorakoa, eta horrek desoreka sortzen du udal zergen eta bizitzaren benetako kostuaren artean. Bestetik, Elorrioko Udalak inguruko udalerriek baino zerga baxuagoak ditu. Eta, amaitzeko, udalak finantziarioa behar du kalitatezko zerbitzu publikoak emateko", azaldu du Maria Herrero zinegotziak.

Bestalde, ordenantzek hobarietan aldaketak jasoko dituztela azaldu dute. Besteak beste, nabarmendu dute Ondare Higiezinaren Zergan hobari bat ezarriko dela familia ugariarentzat eta ahultasun egoeran dauden pertsonentzat. Era berean, hobari bat ezarriko da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergen, efizientzia energetikoa hobetzeko helburua duten esku-hartzeetarako, EAJk egindako ekarpena izan da.

## Urriko azken asteburuan Abadiñoako Gaztetxearen 25. urteurrena ospatuko dute

Bertsu saioa, bizikleta martxa, bazkaria eta emakumeen azoka, besteak beste, urteurreneko asteburuan



Abadiñoako Gaztetxea.

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Urriaren 27tik 29ra Abadiñoako Gaztetxearen 25. urteurrena ospatuko dute. Hiru eguneko egitaraua prestatu dute eta Ekidak antolatuturiko 'Miseriaren adarrak' bertso saioagaz emango diote hasiera.

Jarduerarik gehienak zapatuan izango dira. 11:00etan bizikleta martxa egingo dute, eta bien bitartean argazki erakusketa egongo da Gaztetxean bertan. 14:30ean bazkaltzeko batuko dira Gaztetxean, eta arratsaldean familia argazkia aterako dute. Bazkaltzera joan gura duenak Abarketeruenean erosi beharko du txartela.

Arratsaldean, 18:00etan hasita, Xaukena elektrotzarangak girotuko du urteurren jaia, eta 21:00etan kontzertuak hasiko dira Gaztetxean: Stilu, Denso Productions, Gozue eta NjO.

Domekan, urriak 29, emango diote amaiera urteurren asteburuari, Abadiñoako artisauen azokagaz.

## Arrazolatik Anbotora begira, behinolako pasadizoak ezagutzuz

Jesus Eguzkitza 'Eguzki' arrazolarrak bisita gidatua zuzendu zuen joan zen domekan auzoa ardatz hartuta

**ATXONDO • J.G.**

Arrazola ez da edozein auzo, eta Jesus Eguzkitza 'Eguzki' ez da edozein hizlari. 'Anbotoko Mariren altzoan' bisita gidatua zuzendu zuen 'Eguzki'-k joan zen domekan. 30 bat laguneko talde batek garai bateko siniskera eta pasadizoak ezagutzeko aukera

izan zuen Gerediaga elkarteak antolatutako ekitaldian. Eguraldi ederragaz, Arrazolako plazatik ekin zioten ibilbideari, eta eliza ere ezagutu zuten. Anboto mendia ardatz hartuta, bidegorrian zehar Toperaino heldu ziren, azalpen interesgarriak entzunda.



Jesus Eguzkitza 'Eguzki' Arrazolako bidegorrian Anboto mendira begira.





Ez baduzu hanka  
sartu nahi,  
sartu zure iragarkia  
IragarkiLaburrak.eus  
atarian

Hemen  
eta online 





Egunotan horma irudi bat margotu dute eskolako sarreran.

## Dena prest Mallabiko Learreta-Markina eskolaren 50. urteurrena ospatzeko

Urriaren 21ean egun osoko jaia antolatu dute urtemugari merezi duen ospakizuna emateko

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Mallabiko Learreta-Markina eskolako komunitateak dena prest du 50. urteurrenari merezi moduko ospakizuna emateko. Ekimenak urriaren 21ean zentratuko dira batez ere, eta pilotalekuko bazkaria izango da erdigunea. Bazkaritako txartelak lortzeko azken eguna gaur da, 18:00etatik 20:00etara, Mallabia I pilotalekuan.

Eskolan hasiko dute zapatua dantza, bertso, argazki erakusketak eta bestelakoekin. Eguerdian herrira zabalduko dute jaia. Trikitilarietara kalejira joango dira parkera eta eskolako ikasle ohiek sortutako abesti berria aurkezteko dute. Abestiagaz batera bideoklip bat ere egin dute. Eskolako komunitate osoa gonbidatuta egon

da grabazioetara. Horren ostean bazkaritara batuko dira Mallabia I pilotalekuan eta bazkalostean askotariko ekimenak egongo dira. Eguna Xaiborren kontzertuarekin amaituko dute, berriro parkean.

Baina ekimen denak ez dira egun horretara mugatuko. Asteazkenean zehar solasaldi bat egingo dute eskolan: gaur eguneko ikasleek iraganeko kontuei buruz gehiago jakiteko aukera izango dute ikasle eta irakasle ohien ahotik. Egunotan eskolaren urteurrena gogoratuko duen horma irudi bat margotzen ere badabilta.

Horrez gainera, komunitatetik sustatutako lehiaketa baten bidez eskolaren logotipo aukeratu dute eta horixe erabiliko dute aurrerantzean.

### EGITARAUA

#### URRIAK 20

• 19:00 Bertsio kontzertua. Parkean

#### URRIAK 21

- 11:00 Dantza, bertsoak, argazki erakusketak... Eskolan.
- 13:00 Kalejira trikitilarietara parkera. Eskolako abestiaren aurkezpena.
- 15:00 Bazkaria, herriko frontoian
- 19:00 DJ Xaibor parkean.

## Learreta-Markina eskolako izenaren jatorrian dagoena

Josefina Markinak eta Nicolas Learretak emaniko lurretan eraiki zituzten Mallabiko eta Berrizko eskolak



Nicolas Learreta eta Josefina Markina.

**MALLABIA • J.D.**

Bat baino gehiago konturatuko zen Mallabiko eta Berrizko eskola banak izen bera dutela: Learreta-Markina. Nicolas Learreta eta Josefina Markina senar-emazteei zor zaie izen hori. Markina Mallabiko Ametzaga jauregian jaio zen, 1889an. Nicolas Learreta Arrietakoa zen. 1928an ezkondu ziren. Estibalitz Gonzalezen ikerketaren arabera, ondasun askoren jabe eta oinordeko zuzenik barik, lursail bana eman zieten Mallabiko eta Berrizko udalei 70eko hamarkadaren hasieran, dohaintzan, hezkuntza eta kirol erabilpena emateko baldintzagaz. Lur horietan eraiki zituzten eskolak, eta biei Learreta-Markina izena ipintzea esker oneko keinu bat izan zen orduko udalen partetik.

Mallabiko Learreta-Markina eskolak 1973an zabaldu zituen ateak. Aldi berean, Goita, Gere

eta Beranoko auzo eskolek zein herriguneari zegoenak urteetako ibilbideari amaiera eman zioten orduan. "Eskola berria zapaldu zuten lehenengo ikasleek gaztelania hutsean ikasten zuten. Euskara ikasgai bat zen. 1983an D eredu a ezarri, eta ikasleak gela bitan banatzen hasi ziren: euskarazkoak eta gaztelaniazkoak. 1979an jaiotakoetatik hona denak izan dira euskarazko taldeak", kontatu du urteurrenaren harira eskolaren historiari buruz dokumentatu den Igone Amestik. Horregaz batera, "eskola berriagaz sexu segregazioa amaitu zen: herriko neska-mutilak gelakide izatera pasatu ziren".

50 urtean 655 bat ikasle pasatu dira eskolatik. Talderik kopurutsuena 1973koa izan zen, 25 ikaslegaz. Talderik txikiak 1983koa, 1988koa eta 1993koa izan ziren, launa ikaslegaz.

## Jon Olibaresek irabazi du ardi txakurren Euskadiko txapelketa, Mañarian

Jon Olibaresek eta Bizi txakurrak Zeanurira eraman zuten txapela. Guztira, zortzi parte hartzaile aritu ziren lehian



Mañarian aritu ziren zortzi parte hartzaileak, euren ardi txakurrekin.

**MAÑARIA • J.D.**

Joan zen zapatuan, ardi txakurren Euskadiko txapelketa lehiatu zuten Mañarian, eta Jon Olibares zeanuritarra izan zen txapelduna, Bizi txakurragaz. Zortzi parte hartzaileetatik bakarra izan zen Durangaldekoa: Juanjo Garate izurtzarra, Tina txakurragaz. Beste honako hauek osatu zuten zortzikotea: Mikel Pagazaurtundua lemoarrak, Bittor Bengoetxea galdakoztarrak, Mikel Aizpurua oiartzuarrak, Javier Gastañaga aretxabaletarrak, Gaizka Etxaniz azkoitiarrak eta Pello Segurola matxinbentarrak.

## Txotxongiloen bitartez kontaturiko ipuinen saioa, hilaren 20an, Izurtzan

Umeei zuzenduriko ikuskizuna da, Izaskun Mujikaren eskutik

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako erabilera anitzeko guneak beste ekintza bat hartuko du laster. Oraingoa umeei zuzendurikoa izango da. Urriaren 20ko barikuan, 17:30ean, txotxongiloen bitartez kontaturiko ipuinekin gozatzeko aukera egongo da bertan. Bost urtetik gorako haurrei zuzenduriko saioa da eta sarrera doakoa da bertaratzen direnentzat. Izurtzako Udalak antolatu du ekimena. Izaskun Mujika kontalariak ipuinen mundu magi-

koan murgilduko ditu umeak. 20 urtetik gorako ibilbidean, askotariko ikuskizunak sortu ditu Mujikak ('Ibili Alai', 'Munduko ipuinak', 'Izaba Joxepiren baserria'...) eta bakarka edo taldean Euskal Herriko herri asko bisitatu ditu.

Baina bere ibilbidea ez da umeen ikuskizunetara mugatzen. Besteak beste, Atikus eta Pasadas las 4 antzerki taldeetan aritu izan da, eta irakaslea ere izan da Nafarroako Arte Dramatikoen Eskolan.





# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez anbotokide!**

**anboto**  
**kide**



**anboto**  
**kide**

Anbotokideen  
txokoa

## URRIKO ZOZKETAK



**Emozio festa!** Ene Kantak umeentzako antzerkirako sarrera bikoitza. Urriaren 22an, Arriolan.



Errigoraren otzara.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

'Imanol oroituz' San Agustinen: Martin Loizate Sarrionandia  
Gosaria Xiberun: Lourdes Irazola Garaizabal

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



# “Ama laster jubilatuko denez, pausoa ematea eta dendaren ardura hartzea erabaki dut”

Belaunaldi erreleboa gauzaten dabilta Berrizko Kimu lore-dendan. Amaia Zabalak bere alaba Ane Etxeitari emango dio lekukoa. Etxeitak lan finko bat utzi du negozioari heltzeko



**BERRIZ / GARAI • EKAITZ HERRERA**

Aspaldian, komertzio ugari erreleborik barik zarratu dira, baina salbuespena topatu dugu Berrizen. Amaia Zabala Ibabe (Garai, 1958) Kimu lore-dendako arduraduna izan da azken 21 urteotan. Laster hartuko du erretiroa; hori bai, erreleboa ziurtatuta daukala. Izan ere, bere alaba Ane Etxeita Zabalak (Garai, 1988) hartuko du lore-dendako ardura ama erretiraturikoan. Etxeitak albo batera utzi du egonkorra zuen lana, familiako negozioari eusteko.

**Komertzio txiki asko erreleborik barik dabilta pertsiana bajatzen. Baina hori ez da Kimu lore-dendaren kasua.**

**Ane Etxeita Zabala:** Halantxik da. Gerrogo eta gehiago dira atea zarratzen dabilta komertzio txikiak, baina hau ez da kasua. Amari jubilatze momentua laster ailegatuiko zaiola eta, pauso bat eman dut

aurrera etorkizunean dendako arduraduna izateko. Beragaz hasi naiz lanean, martxa hartzen.

**Kostatu egin zaizu erabakia hartzea?**

**A.E.Z.:** Lan finko bat neukan, banuen erosotasun hori. Eta egonkortasun hori duzunean, ez duzu aldaketetan pentsatzen. Ingurukoek bultzatu ninduten aldaketa egitera. Ikastaro bat egin nuen, eta hemen hasi naiz. Ez da aldaketa gatxa izan. Izan ere, ez da zero-zerotik hasitako zerbait. Egun puntaletan lagundu izan diot amari lore-dendako lanetan.

**Amaia, negozioaren ardura alabak hartuko duela eta, zer sentipen duzu?**

**Amaia Zabala Ibabe:** Ustekabea hartu nuen, ordura arte beti esan zidalako ez zuela dendaren ardura hartuko. Sorpresa hartu nuen eta pozik nago. Domusantu eguna dela, ezkontzak direla,... alaba

beti egon da niri laguntzen, txikitatik. Oraintsu ikastaroak egin ditu, formakuntza jaso du. Eta ikasketak amaituta pozik dagoela ikusten dut. Hori pozgarria da. **Zenbat urtean lan egin duzu Kimun?** **A.Z.I.:** Denda hau 2002an zabaldu nuen. Hori baino lehenago, herriaren behealdeko beste lore-denda batean behar egin nuen, bost urtean. Gauzak asko aldatu dira. Denda txikitetan arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, jendearen gustuak eta beharriak ezagutzen ditugu. Internetek eskaintzen duenaren aldean, gurea bestelakoa da, pertsonalizatua. Urtebete eta zortzi hilabete barru jubilatuko naiz.

**Lan finko bat neukan, banuen erosotasun hori. Eta egonkortasun hori duzunean, ez duzu aldaketetan pentsatzen**

**Zelan ikusten duzue denda txikien egoera?**

**A.Z.I.:** Ez dira garairik onenak. Esango nuke leku guztietan legez eguneroko lana ezinbestekoa dela. Kanpora irtetea eta eremua zabaltzea ere lagungarria da. Gu, adibidez, Parisen egiten diren lore eta landare azoketara joaten gara, nobedadeak ikusi eta ideiak hartzeko.

**Zer esango zenieke negozio txiki baten ardura hartzeko duda-mudatan dabiltaizenei?**

**A.E.Z.:** Eman dezatela aurrerapausoa, beti egongo da-eta aldatzeko aukera. Eguneroko errutinak ematen digun erosotasun horretan bizi gara. Zailtasunak zailtasun, beti topatzen da aurrera egiteko bidea.

**Eta zer esan bezeroei?**

**A.E.Z.:** Hemen gaudela, euren esanetara, eta euren gustuen arabera eskaintza zabala daukagula. Lore freskoak, artifizialak zein landareak. Behar dutenerako laguntzeko prest gaudela.

**A.Z.I.:** Bai, etorri daitezela, izango dute-eta nork hartu. Bezeroek esaten zidaten: "Eta zuk utzirik, zer?". Alabak segituko zuela esaten nienean poz-pozik ipintzen ziren.



## Zaborteia egonkortzeko lanak "berandu" heldu direla salatu dute

**ZALDIBAR • A. M.**

Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuak urriaren 3an iragarri zuen Jaurlaritzak "modu subsidiarioan" bere gain hartuko zituela Zaldibarko zaborteia egonkortzeko lanak; "Lehenbailehen" hasiko zituztela ere iragarri zuen. Aurretik, Zaldibar Argitu plataformak, Ekologistak Martxanek eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak zaborteia "berriro jaus-teko arriskuan" zegoela salatu zuten, eta premiazko neurriak hartzeko eskatu. Orain, lan horiek "nahikoa ez direla" salatu dute, eta, gainera, "berandu" datozela. "Berehalako aktuzioa hondakin masa mugitzen ari zela adierazten zuten txostene-ko lehenengo datuak ezagutu zirenean hasia dago: 110 euro da bazkideentzat, eta 130 bazkide ez direnentzat. Interesa dutenei izen ematea ahalik eta lasterren egitea eskatu diete, antolakuntza errazteko: [mirugainelkartea@gmail.com](mailto:mirugainelkartea@gmail.com) helbidean edo 722 571 873 telefonoan egin daiteke. Datorren urtera begira, Aste Santuan bost eguneko irteera bat antolatzeko asmoa dute, lehenengoz.

## Mirugainek antolatuta, Donejakue bideko Orreaga-Iruña bidea egingo dute azaroan

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandioko Mirugain Mendizale Elkartek jende berria erakarri gura du elkartera eta antolatzen dituen ekimenetara. Horretarako, mendizaleen artean interesa piztu dezaketen ekimen berriak eskaintzen ari dira. Euretari bat Donejakue bidea etapaka egitea da, apurka-apurka, urtean irteera bat antolatuta. Lehenengo irteera azaroaren 18an eta 19an

**Interesa dutenek izen ematea ahalik eta lasterren egiteko eskatu dute Mirugain taldekoek**

egingo dute. Lehenengo egunean, Orreagatik Larrasoainara joango dira, eta hurrengoan Larrasoainetik Iruñera. Izen ematea hasita dago: 110 euro da bazkideentzat, eta 130 bazkide ez direnentzat. Interesa dutenei izen ematea ahalik eta lasterren egitea eskatu diete, antolakuntza errazteko: [mirugainelkartea@gmail.com](mailto:mirugainelkartea@gmail.com) helbidean edo 722 571 873 telefonoan egin daiteke.

Datorren urtera begira, Aste Santuan bost eguneko irteera bat antolatzeko asmoa dute, lehenengoz.

## Idoia Otaduyk zerbitzu sozialen kartera handitzea gura du legegintzaldi berrian

Mankomunitateak presidente berria dauka joan zen eguenetik: Idoia Otaduy Uriarte berriztarra. Aginte makila EAJren eskuetatik EH Bilduren eskuetara pasatu da

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Ardura berriari "neurria hartzen" dabil Idoia Otaduy Uriarte. Joan zen eguenetik bera da Durangaldeko Mankomunitateko presidente berria. Berriztarra da, eta EH Bilduko zinegotzia bere udalerrian. Esku artean daukana "erronka handia" dela dio, eta gaineratu du "gogotsu" dagoela lanean hasteko. "Oso lantalde potentea daukat bidelagun, esperientziaduna. 2015-2019 legegintzaldian Mankomunitateko gobernua egon zirenak ditut on-

doan. Ondo lagunduta nago", dio. Egiturako presidenteordea Mañariko Ainara Otxotorena alkatea (EH Bildu) izango da, eta bigarren presidenteordea Oskar Koka zinegotzi iurretarra (EAJ).

Otaduyk batzordeak eta organoak eratzetik ekin gura dio lanari. Hortik aurrera, 2024ko aurrekontuak lantzea izango du helburu. "Gure lehentasunak gizarte zerbitzuak eta udalerriekin ditugun hartu-emanak indartzea izango dira. Hondakinak batzeko kamioien flota berritzen jarraitu

gura dugu eta, gizarte zerbitzuei dagokienez, gure asmoen artean larrialdi kasuetarako etxebizitzak kudeatzea dago. Azken finean, zerbitzu sozialen kartera handitu gura dugu", azaldu du presidente berriak.

Inbestiduran, Idoia Otaduyk 16 boto lortu zituen presidente izateko. EH Bilduko kideen 15 eta Garai-ko Herriko Taldeko bat. EAJk aurkezturiko Oskar Kokak jeltzaleen 14 boto jaso zituen. Abadiñoko Independente Berriak taldeko Jose Luis Navarro abstenitu egin zen.



EAJko Mireia Elkoroirik (ezkerrean) EH Bilduko Idoia Otaduyri (eskuin) pasatu dio aginte makila.

# Ostalaritza gida

## Abadiño



### ABARKETERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

## Iurreta



### GAUARGI

Dantzari 4 behean, IURRETA  
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

## Xiberu



### XIBERU

Zezipia Gallartzagotia, 9  
Tel.: 946181758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak asteburu. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

## Durango



### IBAIZABAL

Ibaizabal taldea, 2B - DURANGO  
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.





# Jesus Mari Zuazuak irabazi du Geredixa Mikologia Elkartearen zozketa

Urteroko hitzorduari eutsi eta perretxiko erakusketa egin zuten joan zen asteburuan, Abadiñon



Mikologia Elkarteko eta Abadiño Udaleko kideak.

## ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiño Geredixa Mikologia Elkarteak urteroko hitzorduari eutsi zion joan zen asteburuan. Domekan, urriak 8, azken egunotan baturiko perretxikoak ipini zituzten erakusgai Traña-Matienako Errota Kultur Etxean. Erakusketaren 30. edizioa izan da aurtengoa. Hori baino lehena, bezperan, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideekin egon ziren perretxikoak katalogatzen.

Bestalde, domeka eguerdian pintxoak eta ardoa eman zituzten Trañabarren etorbidean. Abadiño Geredixa Mikologia Elkarteko kideek ondo kaxa baten zozketa ere egin zuten. Jesus Mari Zuazua izan zen ondo kaxaren onuraduna.

## Politikan

Jorge Varela  
Dorrio  
Herriaren Eskubidea



## Gonbitea

Hemen dira, beste behin, San Fausto Jaiak. Konfinamendu ondoko 2.ak, hain zuzen ere. Jairik gabeko 2020 tristerearen eta 2021eko "Ez Jaien" ostean, gogoz hartu genituen kaleak. Aurten, jai giroan pasatutako uda amaiezin honen bukaeran, gurekin dira egutegiko azken jaiak. Gureak, hain justu. Egia da uztailleko eta abuztuko jai herrikoiek badutela bere xarma. Inbidia ere sentitzen dugu durangarrok inguruko herritarrek udan ospatzen dituztelako. Baina onartu beharra dago, beste guztiei jai giroa ahaztu eta Gabonetara begira daudenean, San Faustoak ospatzeak kriston poza ematen digula.

Ohikoa da jaiak iristen direnean, eta bereziki, hasiera ematen dioten ekitaldian, herritarrei ondo pasatzeko eskatzea. Eguneroko betebeharrak eta buruko minak alboratuz festa giro alaian murgiltzeko gonbitea egiteko ohitura dago. Oraingo honetan, beste zerbaitetara ere animatu nahi zaituztet. Ingurukoei begiratzea eskatuko dizuet. Zuek ondo pasatzeaz gain, albokoek ere jai giro ederri izateaz arduratu zaituzten. Ez ezazue inoren espaziorik inbaditu; ez ukitu inor baimenik gabe; ez inor iraindu, jazarri edo bortxatu. Arazoak dituen norbaitekin topo eginez gero, ez albo batera begiratu; eskainiozue laguntza. Jaiak urtero egongo dira. Parranda andana egiteko aukera urte osoan zehar. Baina egun bateko zure jarrera eta ekintzek, puntualak badira ere, betirako aldatu dezakete bestean bizitza. Bai onerako, bai txarrerako. Bidali dezagun, beraz, individualismoa pikutara eta izan gaitezen taxuzko izaki sozialak. Egin ditzagun komunitatea eta herria.

Besarkada handi bat!

## Durangaldea asteen

### GUROT lehiaketa martxan da, gazteen artean euskara bultzatzea helburu duena

**DURANGALDEA** | 12tik 18 urtera bitarteko gazteei zuzenduriko Gurot lehiaketa ipini dute martxan. Bizkaiko lehiaketa honetan, Durangaldeko hainbat herri parte hartuko dute; Zaldibarrek, Berrizek eta Zornotzak, besteak beste. Gurot aplikazioaren bitartez egiten den joko honen helburua gazteen aisialdian euskara erabilera sustatzea da.

### Zornotzako Udalak euskara ikasteko diru laguntza deialdia zabaldu du

**ZORNOTZA** | Zornotzako Udalak, euskara sustatzeko duen konpromisoari jarraituz, euskara ikasteko diru laguntza lerroa zabaldu du, hamasei urtetik gorako pertsonen zuzenduta. 2022/2023 ikasturtean barnetegi, euskaltegi publiko edo pribatu homologatuetan parte hartu duten pertsonen laguntza ekonomikoa ematea da helburua.

### Santiago Onaindia Ikerketa Bekaren 18. edizioa zabalik dago Zornotzan

**ZORNOTZA** | Zornotzako Udalak iragarri du zabalik dagoela Santiago Onaindia Ikerketa Bekaren 18. ediziorako deialdia. Ekimenaren helburu nagusia euskal literaturaren arloan azterketa eta ikerketa lanak sustatzea da. Bide batez, Santiago Onaindia euskal idazle eta ohorezko euskaltzaina omentzeko helburua ere badu ekimenak.



### Durangoko gaztegune eta ludoteka zerbitzuak berriro ipini dituzte martxan

**DURANGO** | Udako geldialdia amaituta, zapatuan hasi ziren berriro zerbitzua ematen. Zapatuetan 17:00-20:30 orduategiaz egongo da zabalik. Domeketan, 17:00-20:00 orduategiaz.

Gaztegunek 12tik 15 urtera arteko gazteen autonomia sustatzea du helburu. Ludoteka 5etik 11 urtera bitarteko umeentzat da. Jar-duera musikalak, irteera txikiak eta familiako kideekin garatzeko ekintzak egiten dituzte.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).





# BURUARI KLIK!







# ITZALAK

---


Beheko itzal hauetatik zein dago ondo?





# LABIRINTOIA






Zein bide hartuta harrapatuko du lapurra?





# MOZORRO BAKOITZARI BEREA








Mozorro bakoitzari beheko  
elementu bat dagokio





# ITZALAK











Kareta bakoitzari bere itzala dagokio.







# BIKIAK

Barraskilo hauetatik guztietatik bi berdinak dira, zeintzuk?






# FORMAK

Jarraitu puntuei eta forma topatuko duzu. Zein?



Hirukia







## 'El rey tuerto'

ANTZERKIA Elorrio :: Urriak 20

### Umore beltzez bustiriko komedia soziala, Elorrioko Arriola antzokian

Denbora luzez elkar ikusi ez duten lagun bi dira Lidia eta Sandra, batak bestearen mutil-laguna ezagutzeko bikoteen arteko afaria antolatzea erabaki dutenak. David istiluen aurkako polizia da, eta Ignacio gizarte-dokumentalista, manifestazio batean begi bat galdurikoa gomazko pilota baten erruz. Guztia oso presente dagoen politikari baten diskurtsoak giro-tuta. Hori du Inextremis konpainiaren hirugarren obrak abiapun-

tu, Tanttaka konpainiagaz elkar-lanean sorturikoa, umore beltzez bustiriko komedia soziala.

Konbikzioen hauskortasunaz, gizarteko rolen izaeraz eta egia-ren bilaketaz ari da *El rey Tuerto*, eta ikuslea bidegurutze batean ipini gura du, adierazpen askatasunaren, kontrol sozialaren, etikaren eta neurrigabeko indarkeriaren erabileran dagoen moralaren segadan. Arriola antzokian, urriaren 20an, 20:00etan.

## Urriaren 13an

### ZORNOTZA jaialdia

#### Mangamore

**Mitsuru Nagata, Sumi-e**

**erakustaldia**, 18:00etan,

Amorebieta IV frontoian.

**Zaurien makillaje tailerra**

**(Txebasfx)**, 17:00etan,

Zelaieta zentroan.

**'Ilustrazioa eta Concept**

**Art' hitzaldia (Maitane**

**Echevarria marrazketa**

**irakaslea eta Alfonso**

**Berroya EHUko Arte Ederren**

**fakultateko dekanordea)**,

18:00etan, Zelaieta zentroan.

**Zelan marraztu Kawaii**

**tailerra**, 19:00etan, Zelaieta

zentroan.

**Umore horia eta puzgarriak**,

Herriko plazan (17:00 - 21:00).

**Zornotzako Musika Banda**,

20:00etan, Amorebieta IV

frontoian.

**Txapelketak** Zornotza Aretoan.

## Urriaren 14an

### OTXANDIO berbaldia

#### Ondarearen

**Jardunaldiak: 'Akelarretik**

**txitxiburduntzira'**

**izenburupean berbaldia,**

**kantaldia eta dastatzea**,

12:00etan, Mekoletako Arkotxe

elkartean. Gerediaga elkartea.

### ZORNOTZA jaialdia

#### Mangamore

**Ludosport Hispania, argi-**

**sable borrokaldi tailerra**,

11:00etan eta 19:30ean,

Amorebieta IV frontoian.

**Ekialdeko joko tradizionalak**

**(Tarasu elkarte)**, 11:00etan,

Zelaieta zentroan.

**Manga Marrazketa (Egoitz**

**Pinto)**, 11:00etan, Zelaieta

zentroan.

**'Japoniara erraz bidaiatu'**

**hitzaldia (Juan Carlos Pérez)**,

11:30ean, Zelaieta zentroan.

**El quinto emperador, One**

**Piece kahoot**, 12:00etan,

Amorebieta IV frontoian.

**Sumi-e tailerra (Mitsuru**

**Nagata)**, 13:00etan, Zelaieta

zentroan.

**'Cosplay' hitzaldia (Mina**

**Staliart)**, 13:00etan, Zelaieta

zentroan.

**Aida TM (Meet and greet)**,

13:00etan, Amorebieta IV

frontoian.

**Mitsuru Nagata, Jose Luque**

**sumi-e erakustaldia eta**

**Shamishen**, 17:00etan,

Amorebieta IV frontoian.

**Hauts iratxoak tailerra**

**(Salient Art)**, 17:00etan,

Zelaieta zentroan.

**'Nola egin beldurrezko**

**zinema japoniarra' hitzaldia**

**(Alex Welder)**, 17:30ean,

Zelaieta zentroan.

**'Fantasiako euskidazkera:**

**Euskal nortasuna**

**eta mitologia genero**

**garaikideko literaturan**

**sartzea' hitzaldia (Nahikari**

**Diosdado)**, 19:00etan, Zelaieta

zentroan.

**Kamisuno tailerra (Tarasu**

**elkartea)**, 19:00etan, Zelaieta

zentroan.

### Cosplay eta pasarela

**txapelketak**, 18:00etan

(sari banaketa, 20:00etan),

Amorebieta IV frontoian.

**Kontzertua: Más Allá del**

**Taiko (Sayako Antona)**,

21:00etan, Amorebieta IV

frontoian.

**Umore horia eta puzgarriak**,

Herriko plazan (11:00-14:00 /

17:00-21:00).

**Txapelketak** Zornotza Aretoan.

## Urriaren 15ean

### ZORNOTZA jaialdia

#### Mangamore

**Aikido Tanabe**, Ukabidea

Club Zornotza, 11:00etan,

Amorebieta IV frontoian.

**Japoniara tailerra (Egoitz**

**Pinto)**, 11:00etan, Zelaieta

zentroan.

**Digimon TCG txapelketa**,

11:00etan, Zornotza Aretoan.

**'Argazkilaritza eta Cosplay'**

**(Alvaranova) berbaldia**,

11:30ean, Zelaieta zentroan.

**'Más Allá Del Taiko (Sayako**

**Antona) tailerra**, 12:30ean,

Amorebieta IV frontoian.

**Origami tailerra (Scalesforge**

**elkartea)**, 13:00etan, Zelaieta

zentroan.

**Sushi erakustaldia eta**

**dastatzea (Cristina**

**Sombray)**, 13:00etan, Zelaieta

zentroan.

**Karaoke Txapelketa**,

17:00etan, Amorebieta IV

frontoian.

**Errezitaldia: Konya Lunar.**

Ondoren sariak.

**Clayorama (Tarasu elkarte)**,

17:00etan, Zelaieta zentroan.

**Asian Dance Cover**

**Txapelketa**, 18:30ean,

Amorebieta IV frontoian.

**'Mangaparty' (Motsukora**

**elkartea)**, 18:30ean, Zelaieta

zentroan.

**Umore horia eta puzgarriak**,

Herriko plazan (11:00-14:00 /

17:00-21:00).

### ZALDIBAR tailerra

**Ondarearen Jardunaldiak:**

**'Sorginen prestaketak',**

**ibilaldia eta tailerra**,

11:30ean, plazan. Gerediaga

elkartea.

## Urriaren 18an

### ABADIÑO ipuinak

**Ane Gebara ipuin kontalaria**,

17:00etan, Udal Mediatekan

(4tik 8 urtera arteko umeei

zuzenduta).

## Urriaren 20an

### BERRIZ antzerkia

**'Andereño' (Anita Maravillas)**,

17:00etan, Kultur Etxean.

## Urriaren 31ra arte

### MAÑARIA erakusketa

**'Kabi eta Arrautzak'**, Hontza

Museoan.

## Azaroaren 12ra bitartean

### DURANGO erakusketa

**'Bizitza baten islada: itsasoa,**

**mendia eta gorputza'**, Arte eta

Historia Museoan. Jaime Vicario

artista durangarraren lanak.

# Zinema

## :: Berriz KULTUR ETXEA

• **Casablanca Beats**  
eguztena 18: 18:30

## :: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Me he hecho viral**  
barikua 13: 18:30 / 21:00  
zapatua 14: 17:00 / 19:15 / 21:30  
domeka 15: 17:00 / 19:30  
astelehena 16: 18:00 / 20:15  
martitzena 17: 18:00 / 20:15  
eguztena 18: 19:00

### • Chinas

barikua 13: 21:00  
zapatua 14: 18:00 / 20:30  
domeka 15: 19:30  
astelehena 16: 19:30  
martitzena 17: 19:30  
eguztena 18: 19:00

### • Al otro lado del río y

**entre los árboles**

barikua 13: 18:30 / 21:00  
zapatua 14: 19:15 / 21:30  
domeka 15: 19:30  
astelehena 16: 18:00 / 20:15  
martitzena 17: 18:00 / 20:15  
eguztena 18: 19:00

### • La patrulla canina. La superpelícula

barikua 13: 18:30  
zapatua 14: 17:00  
domeka 15: 17:00  
astelehena 16: 17:30  
martitzena 17: 17:30

## :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

### • Una vida no tan simple

zapatua 14: 20:00  
domeka 15: 20:00  
astelehena 16: 20:00

### • Superheroiaren familia

domeka 15: 17:00

## :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

### • El sol del futuro

astelehena 16: 20:15

### • Las chicas están bien

martitzena 17: 20:15



## San Faustoak 2023

### Urriak 13, barikua

**7:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin

**9:30** Durango Irratia Airean! Ezkurdin. Zuzeneko solasaldiak Durangoko udal ordezkariekin eta herritarrekin

**11:00** Paella txapelketa San Fausto auzoan. Izen ematea: San Fausto frontoian. 14:00 paellak aurkezteko epea. 14:30 sari banaketa. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**11:00** Meza nagusia San Fausto elizan

**11:00 - 14:00** Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

**11:00 - 14:00** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

**11:00 - 13:00** Haurrentzako tailerrak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean). Antolatzailea Iñurri Eskaut Taldea.

**12:00** Poneyak eta zaldiak Ibaizabal parkean. (Euria bada ez da egingo)

**12:00** Ipuina ingelesez 3tik 8 urtera arteko haurrentzat Aurora Abasolo parkean. Antolatzailea: Kids&Us

**12:00** Kalejira musika eskolako txistulariekin

**12:00** Jolasak txosnagunean haur eta familientzat Txosnagunean

**12:30** Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa Udaletxeko plazan. Ondoren, Durangoko Dantzariak (Euria bada, Andra Mariko elizpean)

**12:30** Paella txapelketa Txosnagunean. 14:00 sari banaketa

**13:00** 'Jacuzzi' zirku ikuskizuna Nimú taldeagaz Ezkurdiko kioskoan. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)

**13:30** Durango Kantari, Egundo I taldeagaz Andra Mariko elizpean

**16:30** Haur eta familientzako egur jolasak Ezkurdin. (Euria bada, Jesuitak ikastetxean)

**17:00** Mañaria errearen jaitsiera Tabiratik. Antolatzailea: Txosna Batzordea

**17:00** Txokolatada San Fausto auzoan. (Euria bada, San Fausto frontoian). Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**17:30** Haurrentzako jolasak San Fausto auzoan. (Euria bada, San Fausto frontoian). Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**18:00** 'Bi ipuin' antzezlana Tomaxen Abenturak taldeagaz Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan)

**18:30** Dantzaro Eingo taldeagaz Andra Mariko elizpean

**18:30** Broken Brothers Brass Band Pinondotik Txosnagunera

**19:00** Lindy Hop Swing dantzaldia zuzeneko musikagaz Otamotzena parkean. (Euria bada, Plateruena Kultur Aterpean)

**20:00** Festa poteoa San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**21:00** Zezensuzkoa San Fausto auzoan

**21:00** Nebrashka Ezkurdin

**22:00** Diskodantza San Fausto auzoan

**22:00** Ibil Bedi eta Skabidean. Txosnagunean

**23:00** En Tol Sarmiento Ezkurdin

### Urriak 14, zapatua

**7:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin

**8:00** Sukalki txapelketa Landako Gunean. Laguntzaileak: Hiper Eroski Abadiño eta Cafés Baqué. Izen ematea eta informazioa Intxaurren 19tik aurrera, plazak bete arte

**11:00 - 14:00** Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako eskolako frontoian)

**11:00 - 14:00** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

**11:00** Durangoko pilota eskolako partiduak San Fausto pilotalekuan. Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba

**12:00** Kalejira musika eskolako txistulariekin

**12:00** Gazte Eguneko kamiseta banaketa Santa Anan

**12:00** Arte martzialen kalejira Urkiola kaletik hasita, Alde Zaharretik eta erakustaldia Ezkurdin. Antolatzailea: Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu. (Euria bada, Ezkurdi frontoian)

**12:30** Gazte kalejira Santa Anatik Txosnagunera. Antolatzailea: Txosna Batzordea

**12:30** Bogoroditsie abesbatzagaz Bilbainadak kalejira Alde Zaharretik

**13:15** Show musikala Andoni Oilokiegi kantariagaz Andra Mariko elizpean

**14:30** Gazte bazkaria Txosnagunean. Antolatzailea: Txosna Batzordea

**16:00 - 19:00** Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

**16:00** Skate erakustaldia eta tailerrak Landako skate pistan. (Euria bada ez da egingo)

**16:30** Musika animazioa Ainhoa DJagaz Landako Gunean

**17:00** Gazte jolasak. Txosnagunean

**17:00** Tortilla txapelketa San Fausto frontoian. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**17:00** Familientzako herri kirolak Ibaizabal parkean. Antolatzailea: Auzo Alai elkarte. (Euria bada, Maristak ikastetxean)

**17:30** Poteo transmaribolloa Pinondotik txosnagunera, Kuir Eztanda. Antolatzailea: Txosna Batzordea

**17:30** Senegaleko erritmoak M'Lomp elkartegaz Ezkurditik hasita

**18:00** Gazte karropotea Txosnagunetik hasita.

**18:00** 'Glups' kale ikuskizuna, Yllana & Nacho Villar konpainiagaz Ezkurditik hasita. (Euria bada, Andra Mariko elizpean)

**18:30** Tangoen ekitaldia Plateruena Kultur Aterpean La Tipica Orkestragaz (Montevideo-Durangoren arteko senidetze ekitaldien barruan). Dantzen erakustaldia eta ondoren, milonga

**19:00** Musika korala Coral Spiritual Mallorca A L'Octava taldeagaz San Frantzisko Elizan.

**19:00** XXXIX. San Fausto zesta-punta txapelketa. Finala Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Antolatzailea: Durango Jai Alai Zesta Eskola

**19:00 - 21:00** Haurrentzako dantzaldia animatzaileagaz San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**19:30** 80ko eta 90eko hamarkadetako musika Lowe Banda taldeagaz (Duncan Dhu, Los Secretos, Miguel Ríos eta Fitoren kantak) Ezkurdin

**21:00** Zezensuzkoa San Fausto auzoan

**21:30** Animazioa Alde Zaharretik Ghanako Txarangagaz

**22:00** Les Sauvage MJ eta DJ Eromena. Txosnagunean

**22:00** Dantzaldia San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**22:30** Acero orkestra Madalena auzoan

**23:30** Kontzertua: Carlos Jean Ezkurdin

### Urriak 15, domeka (Umeen Eguna)

**7:00** Diana Jaizale txistulariekin

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin

**10:00 - 13:00** San Fausto haur marrazki lehiaketa San Fausto auzoan. Izen ematea 10:00etatik 12:00etara. Adina 6 urtetik 17ra. Antolatzailea: Centro Social San Fausto

**10:30 - 14:30** Artisau azoka Eixu elkartegaz Ezkurdin

**11:00** Xake txapelketa umeentzat Andra Marian. Aldibereko partidak. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea

**11:00 - 14:00** Txikientzako haur parkea Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)

**11:00 - 14:00** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)

**11:00** Umeentzako goitibeheren jaitsiera, probaketa tailerrak Tabira auzoan

**11:30** Kalejira erraldoi eta buruhandiekin Alde Zaharretik

**12:00** Kalejira musika eskolako txistulariekin



|   |
|---|
| <b>12:00 Patxikotxuren kalejira</b> Kurutziaga Ikastolagaz Ezkurditik udaletxeraino, <b>erraldoi eta buruhandiek lagunduta</b> . Ondoren, <b>ohorezko aureskua</b>                |
| <b>12:30 Txupinazo txikia</b> Kurutziaga Ikastolaren eskutik Udaletxeko plazan  |
| <b>13:00 Erromeria Luhartz taldeagaz</b> Ezkurdin   |
| <b>13:00 'Durango Uria' XXIII. Margo lehiaketaren sari banaketa</b> Ezkurdiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte                                    |
| <b>14:00 Nagusientzako bazkaria</b> Landako Gunean <b>orkestrak girotua</b>   |
| <b>14:30 Herri bazkaria</b> San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto  |
| <b>16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea</b> Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian)   |
| <b>16:00 II. Goitibeheren jaitsiera</b> Tabiran   |
| <b>17:00 Bits jaia, txokolatada eta saltsa dantzaldia</b> Murueta Torre auzoan. Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkarte   |
| <b>18:00 eta 19:30</b> (saio bi) <b>Familia guztiarentzat 'Carrillón' ikuskizuna Kataluniako Cía La Tal taldeagaz.</b> Aurora Abasolo parkean. (Euria bada, Kurutziaga ikastolan) |
| <b>18:00 Maskoten erakustaldia</b> San Fausto frontoian. Antolatzailea: Centro Social San Fausto  |
| <b>18:30 Erromeria Luhartz taldeagaz</b> Ezkurdin   |
| <b>19:00 Imanol kantariari omenaldia Imanol Oroituz kantaldiagaz.</b> San Agustin Kultur Gunean. Sarrerak 8 euro. Antolatzailea: Herria Auzo elkarte.                             |
| <b>20:00 Magia ikuskizuna</b> Andra Mariko elizpean, <b>'Un, dos, tres... magia' Sun Magoaren eskutik</b>   |

**Urriak 20, barikua**

|  |
|--|
| <b>17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak</b> Ibaizabal parkean. Simulazioa 19:00etan. (Euria bada, San Antonio Ikastetxean) |
|--|

|  |
|--|
| <b>18:00 'Terrazeo' girotua</b> Txosnagunean |
|--|

|   |
|---|
| <b>19:00 Elektrotxufila elektrotzaranga</b> Alde Zaharretik |
|---|

|  |
|--|
| <b>19:00 Tortilla txapelketa</b> Txosnagunean. 20:30 sari banaketa |
|--|

|  |
|--|
| <b>20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua</b> Santa Ana elizan: Durangoko Orfeoia, Bogoroditsie eta Izar Gaztea |
|--|

|   |
|---|
| <b>20:00 'Boca Beats' komedia</b> Andra Mariko elizpean |
|---|

|  |
|--|
| <b>21:00 Zezensuzkoa</b> San Fausto auzoan |
|--|

|  |
|--|
| <b>22:00 Nakar, Toc eta Biznaga</b> Txosnagunean |
|--|

|   |
|---|
| <b>22:30 Bertsolariak</b> San Agustin Kultur Gunean: <b>Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Gorka Pagonabarraga eta Eneko Abasolo 'Abarkas'</b> . Gai jartzailea: <b>Unai Iturriaga</b> . (Gonbidapenak Arte eta Historia Museoko leihatilan, urriaren 10etik aurrera eta leku guztiak bete arte) |
|---|

|                                     |
|-------------------------------------|
| <b>23:00 Huntza</b> taldea Ezkurdin |
|-------------------------------------|

**Urriak 21, zapatua (Mozorro Eguna)**

|  |
|--|
| <b>7:00 Diana Jaizale txistulariekin</b> |
|--|

|  |
|--|
| <b>7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin</b> |
|--|

|  |
|--|
| <b>11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu gabeentzat</b> Ezkurdin. Izen ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea. |
|--|

|   |
|---|
| <b>11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea</b> Landako Eskolan. (Euria bada, Nevers ikastetxean) |
|---|

|  |
|--|
| <b>11:00 - 14:00 Haur tailerrak</b> ASEBIER elkartearen eskutik Landako Eskolan (Euria bada, Nevers ikastetxean) |
|--|

|   |
|---|
| <b>11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak</b> Ibaizabal parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean) |
|---|

|  |
|--|
| <b>12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin</b> |
|--|

|   |
|---|
| <b>12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri-Txiri taldearen eskutik</b> |
|---|

|   |
|---|
| <b>12:00 Patata tortillaren XIV. txapelketa</b> Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak/ 16 urtetik gorakoak. Izen ematea eta informazioa: Intxaurren irailaren 26tik aurrera, plazak bete arte |
|---|

|  |
|--|
| <b>12:30 Xaibor disko-festa haurrentzat</b> Ezkurdin |
|--|

|  |
|--|
| <b>13:15 Bilbainadak</b> Andra Marian: Gaupasa |
|--|

|   |
|---|
| <b>13:00 Elkartasun bermut musikatua. KSKA kolektiboaren musikak girotuta.</b> Bitartean, elkartasun mozorro argazkiak Txosnagunean |
|---|

|  |
|--|
| <b>16:00 - 19:00 Txikientzako haur parkea</b> Landako Eskolan (Euria bada, Nevers ikastetxean) |
|--|

|  |
|--|
| <b>17:00 Animazioa trikitixagaz</b> pertsona nagusien egoitzetatik |
|--|

|  |
|--|
| <b>18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz</b> Madalenatik |
|--|

|  |
|--|
| <b>18:30 Zirkua eta antzerkia</b> Aurora Abasolo parkean <b>Proyecto Kavauriren eskutik, 'Lullaby' ikuskizunagaz.</b> (Euria bada, Kurutziaga Ikastolan) |
|--|

|  |
|--|
| <b>18:30 Taldekako mozorro desfilea</b> Madalenatik Ibaizabal parkeraino. Amaieran sari zozketa. Izen ematea: urriaren 2tik 19ra Intxaurren. |
|--|

|   |
|---|
| <b>18:30 Astronomia eskulan tailerrak: suziriak, eskornagots...</b> Zuhatzola parkean. Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkarte. (Euria bada, ez da egingo) |
|---|

|   |
|---|
| <b>20:00 Karaokea Goazen-egaz</b> Ibaizabal parkean |
|---|

|  |
|--|
| <b>21:00 Behaketa astronomikoa</b> Zuhatzola parkean. Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkarte. (Euria bada, ez da egingo) |
|--|

|  |
|--|
| <b>21:00 Zezensuzkoa</b> San Fausto auzoan |
|--|

|   |
|---|
| <b>22:00 Sound System. Airaladeko soinu sistema</b> |
|---|

|  |
|--|
| <b>23:00 Vulkano orkestra</b> Ezkurdin |
|--|

|  |
|--|
| <b>00:00 - 03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa</b> txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Arloa. |
|--|

**Urriak 22, domeka**

|  |
|--|
| <b>7:00 Diana Jaizale txistulariekin</b> |
|--|

|  |
|--|
| <b>7:30 Zezenak Dira dultzaineroekin</b> |
|--|

|   |
|---|
| <b>10:30 Nesken eta mutilen San Fausto XI. Padel txapelketaren finalak</b> Landako Kiroldegian. Antolatzailea: Padel zaleak |
|---|

|   |
|---|
| <b>11:00 - 14:00 Txikientzako haur parkea</b> Landako Eskolan. (Euria bada, Landako Eskolako frontoian) |
|---|

|  |
|--|
| <b>11:00 - 14:00 Gaztetxoentzako jolasak</b> Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean) |
|--|

|   |
|---|
| <b>12:00 Tabira Musika Bandak emanaldia egingo du</b> J.M. Barandiaran egoitzan |
|---|

|  |
|--|
| <b>12:00 Txiki Txef tailerrak</b> Tabira auzoan. (Euria bada, San Antonio ikastetxean) |
|--|

|  |
|--|
| <b>12:00 Kalejira musika eskolako txistulariekin</b> |
|--|

|   |
|---|
| <b>12:00 Poneyak eta zaldiak</b> Ibaizabal parkean (Euria bada, ez da egingo) |
|---|

|  |
|--|
| <b>12:00 - 14:00 Arku-tirorako gunea</b> Ibaizabal parkean. (Euria bada, Landako Gunean) |
|--|

|  |
|--|
| <b>12:30 Herri Kiroiak Ezkurdin: Hodei Ezpeleta</b> (Euskal Herriko Txapelduna), <b>Alex Txikon, Goizeder Beltza, Bihurri, Karmele Gisasola</b> (Euskal Herriko Txapelduna), <b>Nerea Egurrola</b> (Euskal Herriko Txapelduna) <b>eta Carlos Aretxabaleta</b> . (Euria bada, Landako Gunean) |
|--|

|   |
|---|
| <b>13:15 Kontzertua Tabira Musika Bandagaz</b> Plateruena Kultur Aterpean |
|---|

|   |
|---|
| <b>16:00 Arku-tiro txapelketa</b> Landako Gunean. Antolatzailea: Durangoko arkulariak |
|---|

|   |
|---|
| <b>17:00 Dantza modernoa, garaikide eta urbanoa L´Atelier Dantza Eskolaren eskutik</b> Ezkurdin |
|---|

|   |
|---|
| <b>18:00 Boleros 4 taldea</b> Andra Mariko elizpean |
|---|

|   |
|---|
| <b>18:30 Kalejira Irulitza fanfarreagaz</b> Alde Zaharretik |
|---|

|   |
|---|
| <b>19:30 Patxikotxuri eta jaiei agur esateko</b> , udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretaraino |
|---|

|  |
|--|
| <b>20:00 Jaien amaiera su artifizialekin</b> tren-kotxera zaharretan |
|--|

**Urriak 27, barikua**

|  |
|--|
| <b>20:00 Hitzaldi ikusgarria</b> , udaletxe plazan. <b>Margolan musikalak</b> udaletxeko fatxadan. Antolatzailea: Gerediaga Elkarte. (Hizkuntza: gaztelania) |
|--|

**Urriak 28, zapatua**

|  |
|--|
| <b>16:30 Umeentzako atletismoa</b> Ezkurdi plazan: <b>jolas dibertigarriak (hesiak, erreleboak, ginkana)</b> . Izen ematea: durangokiroltaldea@gmail.com Antolatzailea: Durango Kiroi Taldea. (Euria bada, Landako Gunean) |
|--|

|   |
|---|
| <b>20:00 Durango Txistu Kontzertua 2023</b> Landako Gunean. Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkarte. |
|---|

**Urriak 29, domeka (54. Umeen Euskal Jaia)**

|   |
|---|
| <b>12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea</b> Ezkurdi plazan. (Euria bada, Landako Gunean). Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea. |
|---|

|   |
|---|
| <b>18:00 Herri Maite taldearen akordeoi kontzertua</b> San Frantzisko elizan. |
|---|



# Okm:

## *batzen gaituen distantzia*

### **Abantailak**

#### **EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

#### **HITZ LIBURU-DENDA**

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

#### **HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA**

- %15eko deskontua sarreran

#### **IURRETA KOPISTEGIA**

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

#### **KIROL ERROTA GIMNASIOA**

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

#### **LANDAKO OPTIKA**

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

#### **MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

#### **NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**

- %5eko deskontua produktu guztietan.

#### **URRIKE LIBURU-DENDA**

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

#### **LA PERLA**

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan


#### **NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

#### **HONTZA MUSEOA**

- %50eko deskontua sarreretan





**> anboto**  
**kide**

#### **URALDE HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

#### **EILEKE**

**Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea**

- %15 eko deskontua saio solteetan

#### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

#### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

#### **KEINU OPTOMETRIA ZENTROA**

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

#### **GAU-TU**

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

#### **SOLOZABAL ALTZARIAK**

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE  
eta baliatu abantailez!***



# Imanolen abestiak kantatuko dituzte Durangoko San Agustin kulturgunean, domekan

'Imanol oroitz' kontzertu berezia antolatu dute irailaren 15erako. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 19:00etan, eta ia sarrera guztiak daude salduta



Imanol, Durangon eman zuen azkenengo kontzertuan.

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Imanol Larzabal artista ezaguna omenduko dute domekan Durangon. Herria auzo elkarteko kideek sustatu dute ekitaldia, abeslariak Aramotz auzoagaz zuen hartu-emanagaitik, baina omenaldia durangar guztiena ere izatea gura dute. "Imanol zazpi bider etorri zen Durangora; hirutan bakarrik aritu zen, eta gainerakoetan gonbidatuekin. Besteak beste, Amaia Zubiria eta Paco Ibañez egon ziren hemen beragaz. Beste herri batzuetara ere joaten ginen bere kontzertuak ikustera, eta azkeneko lagunak ere egin ginen", azaldu du Txema Bilbao Herria elkarteko kideak. Larzabal 2004an hil zen eta orain artean "zor" moduko bat sentitu dutela azpimarratu dute. "Betiko istorioa da. Zerbait egin gura genuen, baina ez genuen aukera egokia ikusten, eta azkeneko urteak joan egin dira. Zenbaitek galdetu digute 'Zergatik orain?', eta gure erantzuna beti da berdina: 'Zergatik ez?', esan du Bilbaok. Urriaren 15ean egingo dute ekitaldia, 19:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean. "Jaieran parte hartzeko modu asko dago, eta gure ekarpena hau izango da. Pozik gaude, eta harro Imanoli omenaldi hau egingo diogulako", gaineratu du.

Ia dozena bat artistak parte hartuko du 'Imanol oroitz' ekitaldian, hainbat diziplinakoak, eta gehienak Durangaldekoak dira. "Hasieran planteaturikoa baino mardulagoa izango da ikuskizuna. Jende asko inplikatu da eta, proposamenak egin ahala, denarako prest agertu dira", azaldu du Irati Bilbaok. Musikaria da Bilbao, eta domekan, abesteaz gainera, emanaldia koordinatzeko lanetan ere arituko da. Bilbaori etxetik datorkio musikari donostiarraren doinuekiko zaletasuna, izan ere,

Txema bere aita da. "Etxean asko entzun dugu Imanol; ekitaldian bere klasikoak entzungo dira batez ere, zenbait hamarkadatan abestu zituenak", esan du. Bilbaogaz batera, Mikel Nuñez (pianoa), Ander Ertzilla (saxofoia, oboea eta ahotsa), Aritz Luzuriaga (kontrabaxua), eta Aitor Bravo (bateria) musikariak igoko dira oholtza gainera; Unai Iturriagak bertsoak kantatuko ditu, eta Joseba Sarrionandia eta Harkaitz Cano [Fakirren ahotsa liburua idatzi zuen 2018an, Imanolen bizitzan oinarrituriko nobela] idazleek ere prestatu dituzte euren ekarpenak; Aritz Lasarguren dantzari durangarrak dantzan egingo du. Erika Lagomak gidatuko du

**Unai Iturriagak, Erika Lagomak, Ander Ertzillak, eta Aritz Lasargurenek parte hartuko dute, besteak beste**

ikuskizuna. "Zuzeneko musikak gidatuko duen ekitaldiak prosa, poesia, dantza eta bertsoa batuko ditu, baita ikus-entzunezkoak ere. Ahal izan dugun moduan konpondu gara lanerako, baina emaitza txukuna izango da", esan du Txema Bilbaok.

"Behin erabakia hartuta, antolatzeari ekin genion, batez ere inguruko jendeagaz, eta hau da 'Imanol oroitz' ekitaldia", gaineratu du. Irati Bilbao ere pozik dago emaitzagaz eta herritarrek ikuskizunari egindako harreragaz. "Herria elkarrengatik eta Aramotz auzoagaz ez ezik, durangar askogaz zuen hartu-eman artistak, horregaitik ere bada garrantzitsua San Agustinen egitea", esan dute. Edizioa itxi orduko, ia sarrerarik gehienak zeuden salduta, eta domekan aretoa lepo egotea aurreikusten dute.

# Zornotza Manga eta Anime kulturaren epizentro bihurtuko da hamazazpigarren urtez

Urriaren 13tik 15era bitartean Mangamore jaialdia egingo dute Zornotzan

## MANGAMORE • ARITZ MALDONADO

Zornotza Manga eta Anime kulturen epizentro bihurtuko da beste urte batez; zaletasun horiek dituztenentzat ez ezik, antolatzailak edozein adineko publikoarentzat prestatu dute programazioa aurten. Mangamore errotuta dago Zornotzan, eta hori azpimarratu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. "Mangamorek merezitako ospea irabazi du Japoniako kultura eta entretenimendua maite dituztenen

artean; oraingo hau, zalantzarik barik, adin guztietako zornotzarreri eta bisitariei zuzenduriko programa zabala da", gaineratu zuen. 17. edizio honetan, Aida. TM tiktoker, ilustratzaile eta edukiz sortzailea egongo da, besteak beste; 450.000 jarraitzaile baino gehiago ditu eta manga edukia lantzen duen *influencer* ezagunenetariko bat da, Salterainen berbetan.

Horrez gainera, El quinto emperador youtuber ezaguna ere egongo

da asteburuan Zornotzan; *One piece* zale sutsua da gipuzkoarra. Lehenengo gunean egongo dira biak, zapatuan, 12:00etatik aurrera.

## Informazioa webgunean

Sortzaile zornotzarrek ere parte hartuko dute asteburuan; besteak beste, Zornotza Musika Bandak eta Ukabidek.

Programa osoa [www.mangamore.eus](http://www.mangamore.eus) webgunean eta Zornotzako Udalaren [www.amorebieta-etxano.eus](http://www.amorebieta-etxano.eus) webgunean dago ikusgai.



Artxiboko irudia.



**BERTSOLARITZA** • A. M.

Domekan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako hirugarren kanporaketa jokatu da Arrigorriagako Lonbo aretoan. Iker Uriarte, Inazio Vidal, Josune Aramendi, Lurdes Ondaro, Garikoitz Sarriugarte eta Iruri Altzerreka bertsolariek kantatuko dute bertan; Sarriugarte zaldibartarra da, eta Altzerreka garaitarra. Saioko irabazleak zuzenean lortuko du Berrizko finalaurrekora sailkatzea. Berrizko finalerdia azaroaren 11n izango da, Olakueta frontoian; Gorka Pagonabarraga durangarrak ere kantatuko du bertan. Aurreko txapelketan finalera heldu zenez, zuzenean sailkatu da finalerdia. Bestalde, urriaren 22ko kanporaketan Ander Sarriugarte durangarrak eta Igor Galarza abadiñarrak abestuko dute; Erandioko merkatu zaharrean egingo dute saioa. Eurekin batera, Garazi Navarrok, Imanol Uriak, Paul Loizagak eta Unai Mendiburuk abestuko dute.

Kanporaketetarako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean erosi daitezke.

**Altube, bigarren**

Joan den asteburuan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen. Bertsozalez lepo bete zen Gernikako Lizeo antzokia. Ibai Amillategik irabazi zuen saioa, 479 puntu eskuratuta. Bittor Altube abadiñarra bigarren geratu zen, 472,5 puntugaz. Euren atzetik amaitu zuten Mikel Retolazak (455 puntu), Arkaitz Zipritiak (443,5),

## Garikoitz Sarriugartek eta Iruri Altzerrekak Arrigorriagako kanporaketan kantatuko dute

Domekan izango da kanporaketa, urriak 15, 17:00etan, Arrigorriagako Lonbo aretoan; Bittor Altube bertsolari abadiñarra bigarren sailkatu zen Gernikako saioan



Bittor Altube Gernikako kanporaketan.

Julen Ibarquengoitiak (438,5) eta Iker Garitagoitiak (434); Itxaro Juaristi abadiñarrak egin zituen gai jartzaile lanak. Honenbestez, Amillategi zuzenean sailkatu da

finalaurrekoetara. Azaroaren 25ean abestuko du, Lemoako finalerdian. Saioa irabazten ez duten bertsolariek puntuazioaren arabera izango dute hurrengo fa-

sean kantatzeko aukera; saio txukuna egin ostean, Bittor Altubek aukera asko du bertan egoteko. Finala abenduaren 16an izango da, Bilbo Arenan.

## Zornotzan estreinatu ostean, 'Andereño' ikuskizuna Berrizera helduko da

**ANTZERKIGINTZA** • A. M.

Anita Maravillas antzerki konpainia zornotzarrak lan berria dakar: *Andereño*. Irailean etxean estreinatu ostean, hurrengo geralekua Berrizen dute. *Andereño* lanaren testuingurua gerra da, eta errepublika garaiko andereñoak eta ikasleak dira protagonistak. Ohikoa duten moduan, titereak eta antzerki bisualak jorratu dituzte lan honetan ere. "Nagusiek hasiriko

**Berrizko Kultur Etxeko emanaldia urriaren 20an izango da, 17:00etan; sarrerak salgai daude**

gerraren aurretik, ume horiek bizitza bat zuten. *Andereño*ren istorioa aske eta zoriontsu izateko saiakera ederra da. Abiapuntu hori hartuta, familia osoentzat iruditegi bat sortzen ahalegin du gara", azaldu zuten aurkezpenean. Hile bian, Zornotza Aretoa egoitza legez erabili dute Anita Maravillaseko kideek. "Hile bian leku berean entseatu eta lana prestatu ahal izatea luxu bat da", adierazi dute. Berrizko Kultur Etxeko emanaldia urriaren 20an izango da, 17:00etan.

## Gai librean

**Isilaraziak XVI**

Disolbatzaile usainak atzera bota du Jeanne Hébuterne gaztea, akademiako ateak zabandu dituenen. Bertan aurkitu du arte klaseko bere kidea eta laguna den Chana Orloff. Cahanak eskulturrekiko zaletasuna badu ere, Jeannek pintura nahiago du, bere neba Andréri esker ezagutu zuen mundu hori, eta ordutik ez du besterik egin. Klasean lagunarekin berba batzuk elkartzen dituenen atetik norbait sartu dela konturatu da Jeanne. Amedeo Modigliani pintore ospetsua dela jabetu da. Txorata geratu da, nahiz eta neska baino nagusiagoa izan orrazkera bihurri horrekin, gazteagoa dela ematen du. Amedeok Jeanne ikusi duenean aho zabalik geratu da, neskatoaren edertasunak hitz gabe utzi du. Modiglianik modelo lanak egiteko eskatu dio Jeanneri eta



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo  
Durangoko Museoa

neskak hori onartu duen momentutik, bien artean harreman sentimental bat jaioko da. Jeanneren gurasoen onepenik ez badu ere, Amedeo eta Jeanne batera bizitzera joango dira Nizara. Neskak pintura utziko du eta modelo lanetan arituko da hurrengo hileetan. Ezagutu eta urte batera Jeanne haurdun geratuko da, baina ez du inoiz alaba beso artean izango, erditu den momentuan Amedeo ospitale batean dagoelako, tuberkulosiak jota. Medikuek erabakiko dute guraso horiek ezin diotela bizi on bat eman umeari eta umezurztegi batera eramango dute txikia. Pasarte traumatikoa izan bada ere, Jeanne berriro geratuko da haurdun. Haurdunaldiak aurrera egingo du eta 9. hilabetera heltzen direnean Amedeoren osasunak okerrera egingo du eta azkenean, 1920ko urtarrilean hil egingo da. Handik bi egunetara Jean-

neren gurasoak eta nebak umearen etorkizunari buruz adosten ari diren bitartean, neskatoak leihotik behera salto egingo du. Haurraren eta bere bizitzari amaiera emanez.

Hurrengo egunean Amedeo Modigliani «printze gisa» lurperatuko dute Père-Lachaiseko hilerrian, artista-komunitate osoak osatutako hileta-gorteiatzeak bere gorpua Parisko kaleetan zehar eraman ondoren. Jeanne, berriz, gurasoek ezkutuan lurperatuko dute Bagneuxeko hilerrian.

Jeanneren irudia hainbat museo-tako hormetan dago zintzilik, baina gutxi batzuek baino ez dute ezagutzen. Pintura utzi zuen beste emakume artista bat. Gizonaren itzaletan ikusezin bihurtu dena. Bere hitzik inoiz entzun ez dena, bere seme-alaben etorkizuna erabakitzeak aukerarik ere izan ez duena. .



**MENDI LASTERKETAK** • JOSEBA DERTEANO  
Sorginen Lasterketan podiuma, Zaldia Trailen garaipena eta Euskal Herriko mendi lasterketen Kopan bigarren postua. Amatasunetik bueltan sasoia hartzea kostatu zitzaion, baina denboraldi amaiera benetan arrakastatsua izan du Oihane Unzaluk.

**Sasoirik onenean amaitu zaizu denboraldia?**

Ezetz esango nuke. Oraintsu lanean hasi naiz eta beherakada txiki bat igarri dut. Hala ere, Kopatik aparte, gure inguruko lasterketak egiteko gogoz nengoen. Beti esan didate Sorginen Lasterketa oso polita dela, Zaldia Trail lasterketa berria da eta, gainera, lankide bat antolatu-kuntzan dagoenez... (barrez). Aramotzen ibilbide laburra egindakoa naiz, baina luzea ez, eta probatu gura nuen.

**Sorginen Lasterketan lehenengoz aritu zinen. Zer iruditu zitzaizun?**

Oso polita. Ez da niri ondoen egokitzen zaidan lasterketa, oso teknikoa delako, eta jaitiera teknikoak ez dira nire indargunea.

**Baina, hala ere, hirugarren amaitu zenuen.**

Etxe inguruan izan da eta horrek motibazio puntu bat ematen du. Artolarako bidean jende asko zegoen eta oilo larrua egin zitzaidan. Entzunda neukan, baina bertan egon arte... ez nuen espero. Gainera, jendeak nire izena esanda animatzen ninduen. Ez zidan astirik ematen albora begiratzeko, baina ona naiz ahotsak bereizten, eta handik segundo batzuetara jabetzen nintzen. Bai, benetan jende asko egon zen eta horrek asko motibatzen du korrikalaria.

**Zaldia Trail lasterketa berria da. Zer iruditu zitzaizun?**

Oso ibilbide bizkorra iruditu zitzaidan. Benetan korrika egiten abila denarentzat egokia. Teknikoa baino gehiago, fisikoa da. Baina polita da eta gustatu zitzaidan. Ibilbidean gerizpe gune asko dago eta gerizpe hori ondo eskertu nuen, bero handia egin zuen eta.

**Euskal Herriko Mendi Lasterketen Kopa izan duzu aurtengo helburu nagusia?**

Bai. Lehenengoz parte hartu dut. Iaz egin gura nuen, baina haurdun geratu nintzen eta plana bere horretan geratu zen. Aurten kopako proba guztiak egitea nuen helburu, ahal izanez gero behintzat. Beharbada, haurdunaldiaren ondoren, lasterketak amaitzen nindoan neurrian, orain nagoen sasoi fisikora bueltatzeko aitzakia lez hartu dut Kopa. Oso pozik nago egindakoa lanagaz. Lehenengo lasterketatik azkenekora garapen handia ikusi dut nigan.

**Oihane Zubillagaz lehia estua izan duzu: 444 puntu berak eta 409 zuku. 35 puntuko aldea besterik ez bien artean.**

# “Orain dudan denboragaz zorrotzagoa izan behar dut. Diziplina horrek plus bat eman didala uste dut”

Ama izan denetik, denboraren kudeaketa egokia prestaketaren alderdi garrantzitsua bihurtu zaio Oihane Unzaluri. "Lehen kirola egiten nuen, orain entrenatu egiten naiz", dio. Eta emaitzei erreparatuta, errezetaz gatazta asmatu duela dirudi

Puntuetan gertu egon gara, baina Oihana puntu bat baino gehiago dago nire gainetik. Hainbat bider egon da selekzioagaz eta gaitasun handia du. Ezin izan du Kopako lasterketa batzuetan aritu, selekzioagaz zebilelako. Kopa merezimendu osoz irabazi du. Nire dohainik onena erregulartasuna izan da.

**Amaitu duzu denboraldia?**

Mendikoa bai. Txipa aldatu eta apur bat asfaltoko lasterketetan ibiliko naiz berriro, aspaldiko partez. Azaroaren 14an Behobia-Donostia proba egingo dut.

**Asfaltotik egin zenuen salto mendira?**

Umetan krosean ibili nintzen. Gero, parentesi baten ondoren, asfaltoan hasi nintzen. 2018 inguruan hasi nintzen mendian korrika. Orain mendian aritzen naiz batez ere.

**“Orain txipa aldatu eta asfaltoko lasterketara bueltatuko naiz. Azaroan Behobia-Donostia proba egingo dut”**

**“Haurdunaldiaren ondoren, beste ezerean aurretik, gorputza berregokitzeko oinarritzko lanketa bat egin behar izan nuen”**

**Lehen, mendizaleak baino ez ziren ibiltzen mendi lasterketetan. Urte batzuetatik hona, asfaltoan arituriko asko hasi dira mendian korrika.**

Bai, egia da, eta asfaltotik mendira salto egin dutenek abiadura puntu bat eman diete mendi lasterketei. Hau da, orain oso arinak eta ez hain teknikoak diren mendi lasterketa berriak daude, eta, beharbada, horixe da arrazoiak: korrikalari askok asfaltoa mendiagaitik aldatu izana. **Urtebeteko umea duzu. Horrek zelan aldatu dizu entrenamenduak egiteko modua?**

Guztiz aldatu dit. Haurdunaldiaren ondoren, beste ezerean aurretik, gorputza berregokitzeko oinarritzko lanketa bat egin behar izan nuen, eta horren ondoren bueltatu nintzen entrenamenduetara. Haurdunaldiaren aurretik, zelanbait esanda, gura zuena egiten



**Oihane Unzalu Aldekoa**  
Mendi korrikalaria  
BERRIZ | 1987

nuen: mendira joan, bizikletan ibili... Handik ordu bira edo hirura bueltatu arren, berdin zidan. Orain zorrotzagoa izan behar dut dudan denboragaz. Lehen kirola egiten nuen eta orain entrenatu egiten naiz: helburuak lortzeko komenigarriena dena egiten ahalegintzen naiz. Denbora ahalik eta ondoen aprobetxatu behar dut, aitzakiarik barik. Diziplina horrek plus bat eman didala uste dut.

**Zer asmo duzu datorren denboraldiari begira?**

Maratoi bat egin gura nuen, baina dagoeneko egin dut bat aurten, udan, nahiz eta ez zen helburua. Portugalen egiteko aukera sortu zitzaidan, eta gustura ibili nintzen. Datorren denboraldian Kopa egin gura dut berriro, eta beste maratoi-eren bat: Marimurumendi beharbada, edo Hiru Txikiak...

**Zein taldetan zabilta?**

Gasteizko Gaikar Zortzietakoak taldean nabil. Aramotz lasterketa laburra irabazi nuenean taldera batzea proposatu zidaten. Durangaldeko korrikalari gehiago ere badago taldean. Ibai Cebrian durangarra eta Victor Bernedo elorriarra, esaterako.



Oihane Unzalu mendi lasterketa batean.



## Xakerako zaletasuna sustatu guran, Larrasoloetak Durangora ekarriko du Bizkaiko txapelketa

Larrasoloetako kideek txapelketa antolatzeko ardura hartu dute, Durangoko klubari aupada berri bat emateko ahaleginean

**XAKEA • J.D.**

Bizkaiko xakelaririk onenak Durangon batuko dira urriaren 21ean hasi eta zazpi zapatutan zehar. Larrasoloeta klubaren ekimenak egin du posible. Durangoko xake klubak bere burua aurkeztu du buruz buruko ligak hartzeko, eta Bizkaiko Xake Federazioak onartu

egin du proposamena. Larrasoloetako kideak klubari aupada berri bat emateko lanean dabilta eta txapelketa Durangora ekartzea ahalegin horren barruan dago.

Buruz buruko liga lau mailatan jokatuko da: Bizkaiko Lehen-tasuneko Mailatik Hirugarren Mailara arte. Inoiz baino xakelari

gehiagok parte hartuko dute, 150 inguruk. Izan ere, aurtengo arte ligak bitan banatzen ziren, zonaldearen arabera, baina aurtengo dena bateratzea erabaki dute. Jardunaldi guztiak Landako eskolako frontoian izango dira. Arratsaldean izango dira, 16:30ean hasita. Xakelariak partida bakarra jokatuko dute zapaturo, partida luzeak direlako, hiru-lau ordu ingurukoak.

**Lagun arteko torneoa**

Larrasoloeta klubak beste txapelketa bat ere antolatu zuen aurreko astebururako, lagun artekoa, jaien bueltan urtero egiten duena. Euskadiko hamabi klub gonbidatu zituzten eta Gasteizko Martintxo kluba izan zen txapelduna. Bestalde, asteburu honetako domekarako, hilak 15, umeen torneo antolatu dute. 11:00etan hasiko da.



Larrasoloetak Durangon antolatutako torneo bateko irudia.

## Laduche-Basque eta Erkiaga-Sorozabal bikoteak zesta-puntako finalean

Goikoetxea-Lopez bikote faboritua kanpoan geratu da



Goikoetxea eta Lopez asteleheneko partidaren amaieran. **ERAMAN!**

**ZESTA-PUNTA • J.D.**

Datorren astelehenean Jai Alai Leagueko finala jokatuko dute Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Ludovic Laduche eta Thibault Basque Aritz Erkiagaren eta Gorka Sorozabalen aurka arituko dira, 19:30ean.

Laduche-Basque bikoteak ezustekoa eman zuen joan zen asteleheneko finalerdian Iñaki Osa Goikoetxea-Imanol Lopez bikotea kanporatuta: 15-13 / 15-12. Ligako aurrelari eta atzelari onenek osaturiko bikotea mendean hartu zuten. Basquek sekulako maila erakutsi zuen eta bera izan zen lauretatik onena. Beraz, erretiroaren atarian, astelehenekoa izan zen Iñaki Osa Goikoetxeak Durangon jokatu duen azken partidua; baita Lopezegaz bikotea osatuta jokatu duen azken aldia ere. Beste finalerdian, Aritz Erkiagak eta Gorka Sorozabalek berdinketa hausteko partidua behar izan zuten Johan Sorozabal eta David Minvielle kanporatzeko: 15-11, 13-15, 5-3.

## Fradesek munduko txapelketan parte ez hartzea erabaki du

Gaixotasun batek ahulduta utzi du eta ez da prest sentitzen horrelako erronka bati aurre egiteko



Aurtengo zazpigarren urtez segidan parte hartu behar zuen Konako hitzorduan.

**IRONMANA • J.D.**

Asteburu honetan Ironmanen munduko txapelketa lehiatzen da Konan (Hawaii), eta, ohikoa duen moduan, Gurutze Frades egun batzuk lehenago bertaratu zen prestakuntzaren azken zatia egiteko. Baina dena bertan behera utzi eta txapelketari uko egin behar izan dio gaixotasun bategaitik, sare sozialetan iragarri duenez. "Gaixotu egin naiz. Egun batzuk ohean eman ditut, entrenatu barik. Egunak aurrera joan ahala A planetik B planera igaro naiz, eta horrela behin eta berriro, harik eta kasurik

txarrenera heldu arte: ez lehiatzea", azaldu du. Gaixotasunak bere sasoiari eragin dio. "Entrenamenduekin berriro hastean, behar nukeen sasoi puntutik oso urrun nagoela konturatu naiz", argitu du.

Parte ez hartzeko erabakia ez dela "baterre erraza" izan eta "buruari makina bat buelta" eman diola dio. "Baina, egia esanda, ez naiz prest sentitzen munduko txapelketari eta distantzia horretako proba bati aurre egiteko", gaineratu du. Orain "erreku-peratzeko" eta "aurrera egiteko" unea dela adierazi du.

## Tabirakoko eta Zornotzako talde nagusien arteko lehenengo derbia durangarrentzat izan da

Durangarrek irabazi zuten derbia, partidu estu batean

**SASKIBALOA • J.D.**

Tabirakok eta Zornotzak aurretik sekula ikusi bako derbia jokatu zuten joan zen asteburuan Durangon. Klub bietako talde nagusiak lehenengoz aritu ziren elkarren kontra. Izan ere, Zornotza lehe-

nengoz dabil Lehen Nazional Mailan. Durangoko kluba nagusitu zen (61-56), partidu estu batean. Horrela, Kopako errebantxa hartu zuten. Izan ere, irailean Zornotzak Tabirako kanporatu zuen kopako final-zortzirenetan.



Tabirakoren eta Zornotzaren arteko derbiko irudia. **LUIS ITURRIOZ**







Emakumeen kategorian, Lide Urrestarazu ordiziarrak irabazi zuen Anboto Kilometro Bertikala joan zen zapatuan (48.37). Oihana Azkorbebeitia abadiñarra geratu zen bigarren (50.27), eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra hirugarren (51.41). Gizonetan, Iñigo Alzola arrasatearra nagusitu zen, 40.03ko denboragaz. Aitor Ajuria otxandiarra sailkatu zen bigarren (00:40:12) eta Vincent Loustau frantziarra hirugarren (41.19).

# Anboto Kilometro Bertikala

Argazkiak: UNAI OLASO







**ETXETXO**  
INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguessado.com](http://www.inmoduranguessado.com)  
inmoduranguessado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)



**DURANGO**

Erdi berria. 2 logela, 2 komun, egongela terrazarekin eta sukaldea eskegitokiarekin. Garajea eta trastelekua.

**275.000 € C.E.E= A**



**IURRETA**

117 m<sup>2</sup>. 4 logela eta 2 komun. 150 m<sup>2</sup>-ko terraza. Erabilera eksklusiboa. Trastelekua eta garajea aukeran.

**220.000€ C.E.E= E**



**ABADIÑO**

94 m<sup>2</sup>. 2 logela eta 2 komun. 150m<sup>2</sup>-ko terraza. Trastelekua eta garajea aukeran.

**259.000€ C.E.E= E**



**MADALENA**

3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza.

**226.000€ C.E.E= E**



**DURANGO**

Apartamentu eguzkitsua. Erdi berria. Sukaldea eta egongela balkoiarekin. Bizitzaren sartzeko moduan.

**C.E.E= F**



**F. J. ZUMARRAGA**

111 m<sup>2</sup>. 4 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Balkoia. Igogailu berria.

**180.000€ C.E.E= F**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Errententxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

**DURANGO:** Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatze. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

**DURANGO:** Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

## ABADIÑO

**ABADIÑO:** Zeletabe kalea. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.

**ABADIÑO:** Etxezpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**TABIRA:** 1.445 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO:** Etxezurin kokatua. 300 m<sup>2</sup>. Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

## //BULEGOAK ALOKAIUAN

### ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.


## //LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguessado.com



**DURANGO**

35


m<sup>2</sup>

1

logela

**KALEBARRIA:** 35 m<sup>2</sup>. Egongela-sukaldea, logela eta komuna. Hirugarren solairua igogailurik gabe. Etxe osoak kanpora ematen du. Erdialdean kokatua. Ganbara. Gas naturala. Inbertsio moduan egokia. ITE-a orainsu pasatokia.

**79.000 € C.E.E: E**



**DURANGO**

68,80


m<sup>2</sup>

2

logela

**ASKATASUN ETORBIDEA:** Behoko solairua (33,73 m<sup>2</sup>). Egongela handia, sukalde jantzia eta balkoia. Lehenengo solairua (25,07 m<sup>2</sup>), 2 logela, komuna eta balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Oso argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. Ganbara eta garajea.

**275.000 € C.E.E: D**



**DURANGO**

90


m<sup>2</sup>

3

logela

**FAUSTE BEKOA:** 2003.urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. 55 m<sup>2</sup>-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Argitsua. Zonalde lasaia, herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Garajea eta 13,5 m<sup>2</sup>-ko trastelekua.

**319.000 € C.E.E: E**



**DURANGO**

73,34


m<sup>2</sup>

2

logela

**JUAN MARI ALTUNA:** (2.008.urtea). Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Zonalde lasaia, erdigunetik gertu. Ezin hobea. 5,70 m<sup>2</sup>-ko ganbara, 6,43 m<sup>2</sup>-ko trastelekua eta 10,94 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia.

**330.000 € C.E.E: Bidean**



**MATIENA**

**ERAIKUNTZA BERRIA:** 91,05 m<sup>2</sup>-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatze.

**266.450 €-tik aurrera**



**ABADIÑO**

318

m<sup>2</sup>

**GAZTELUA AUZOA:** Baserria. Behoko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kotxetokia, 78 m<sup>2</sup> erabilgarri dituena. 15.317 m<sup>2</sup>-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatze. Ingurune berdea eta lasaia, Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura.

**440.000 € C.E.E: Bidean**

## //DURANGO

**ANTSO EZTEGIZ KALEA:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**JOSEMIEL BARANDIARAN:** Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **LEHEN 300.000€ ORAIN 280.000€ / E.E.Z=D**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**SAN FRANTZISKO:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Igogailua onartuta. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

## //BERRIZ

**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikitze baserria lurzorugaz. **280.000 €**

## //GARAI

**MOMOITIO AUZOA:** Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

## //IURRETA

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

**ZELAIETA AUZOA:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

## //ZALDIBAR

**BOLATOKI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

## //GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## //LOKALAK SALGAI / ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.






## Botikak

|   |   |
|---|---|
| <b>BARIKUA, 13</b> · 09:00-09:00                | SARASKETA,<br>LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA    |
| IRIGOIEN,<br>BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA       | <b>ASTELEHENA, 16</b> · 09:00-09:00             |
| IRUARRIZAGA,<br>SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA        | CAMPILLO,<br>MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO     |
| 09:00-22:00                                     | GUTIERREZ,<br>TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA         |
| SANCHEZ,<br>URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO | 09:00-22:00                                     |
| SARASKETA,<br>LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA    | SANCHEZ,<br>URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO |
| <b>ZAPATUA, 14</b> · 09:00-09:00                | SARASKETA,<br>LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA    |
| SARRIA,<br>SASIKOA 17 - DURANGO                 | IRUARRIZAGA,<br>SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA        |
| GUTIERREZ,<br>TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA         | <b>MARTITZENA, 17</b> · 09:00-09:00             |
| 09:00-13:30                                     | NAVARRO,<br>ARTEKALEA 6 - DURANGO               |
| CAMPILLO,<br>MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO     | GUTIERREZ,<br>TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA         |
| BAZAN,<br>URIBARRI 5 - DURANGO                  | 09:00-22:00                                     |
| BALENCIAGA,<br>EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO        | SANCHEZ,<br>URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO |
| NAVARRO,<br>ARTEKALEA 6 - DURANGO               | SARASKETA,<br>LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA    |
| DE DIEGO,<br>INTXAURRONGO 22. - DURANGO         | IRUARRIZAGA,<br>SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA        |
| FARMAZIA MATIENA,<br>TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO  | <b>EGUAZTENA, 18</b> · 09:00-09:00              |
| SANTAMARIA,<br>ERREKAKALE 6. - ELORRIO          | ETXEBARRIA,<br>MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO   |
| IRUARRIZAGA,<br>SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA        | GUTIERREZ,<br>TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA         |
| RUIZ,<br>EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA       | 09:00-22:00                                     |
| MELERO,<br>SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA              | SANCHEZ,<br>URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO |
| GOIRIA,<br>SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA            | SARASKETA,<br>LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA    |
| 09:00-14:00                                     | IRUARRIZAGA,<br>SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA        |
| IRIGOIEN,<br>BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA       | <b>EGUENA, 19</b> · 09:00-09:00                 |
| 09:00-22:00                                     | BAZAN,<br>URIBARRI 5 - DURANGO                  |
| SANCHEZ,<br>URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO | GUTIERREZ,<br>TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA         |
| SARASKETA,<br>LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA    | 09:00-22:00                                     |
| <b>DOMEKA, 15</b> · 09:00-09:00                 | SANCHEZ,<br>URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO |
| UNAMUNZAGA,<br>MURUETATORRE 2C - DURANGO        | SARASKETA,<br>LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA    |
| GUTIERREZ,<br>TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA         | IRUARRIZAGA,<br>SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA        |
| 09:00-22:00                                     |   |

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



*Zorionak guztioi!*

**GOZATU GOZOTEGIA**

Zorionak, **Haizea (950. alea)**!  
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Urriaren 12an lehenengo urtea egin duzu. Zorionak etxeko txikiaren danon partez.



Urriaren 10ean **Anek** 12 urte egin zituen. Zorionak familia guztiaren partez!

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 15° / 20° ☁

ASTELEHENA ↓ 11° / 20° ☁

EGUAZTENA ↓ 14° / 21° ☁

DOMEKA ↓ 13° / 16° ☁

MARTITZENA ↓ 14° / 19° ☁

EGUENA ↓ 13° / 20° ☁

# BIBLIOT EKAREN EGUNA

# MURSEGOREN LIBURUTEGIAK

KONTZERTUA

## 19:00

**URRIAK**

# 19



SARRERA GONBIDAPENAREKIN



# “Ikusitako paisaiek motibatzen naute argazkiak ateratzera”

Jon Armendia arrasatearrak irabazi du ANBOTOk antolaturiko udako argazki lehiaketako epaimahaiaren saria Durangaldetik kanpoko kategorian, Ibizan ateratako argazki batez



Jon Armendia Cervel

Ingeniaritza ikaslea

ARRASATE | 2002



'Ibizan'

**DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI**  
Jon Armendiak kuadrillako lagun batek animatuta parte hartu du ANBOTOk antolaturiko udako argazki lehiaketan. Batez ere paisaiak islatzea du gustuko arrasatearrak; horixe du argazkiak ateratzeko motibazio nagusia, aitortu duenez.

**Itxaroten zenuen zure argazkia izatea aukeratua?**

Sorpresa hartu nuen. Aurkezturiko beste argazkien artean, pare bat nahiko onak zirela ikusi nuen. Banekien nirea polita zena, eta irabazteko aukera izan nezakeela

pentsatu arren sorpresaz hartu nuen deia. Pozik hartu dut berria. **Zer istorio du atzean 'Ibizan' argazkiak?**

Uda honetan Ibizara kuadrillan egindako bidaia; oso bidaia ona, abentura larregi izan duena, beharbada. Bidaia horretan kotxea apurtu genuen eta arazo dezente izan genuen. Gopro argazki kamera batez ateratako argazkia da *Ibizan*, lagun batez urpean igeri egiten nengoela ateratakoa. Nor sakonago heldu lehiaketa egin genuen, eta horretan geundela hainbat argazki atera nuen. Ar-

gazki polita zela eta, lehiaketara bidaltzea erabaki nuen. Kasualitatez eta zorte apur batez ateratako argazkia da, praktika askorik ez dut oraindino.

**Noiz eta zelan hasi zinen argazkigintzan?**

Argazkilaritza asko gustatzen zaitgun hiru lagun gaude kuadrillan. Batez ere, bat. Argazkilaria da bera. Batez ere, paisaiei ateratzen dizkie argazkiak, eta beragaz joaten garen bakoitzean horretarako aprobetxatzen dugu. Eurekin ikasten dut gehien. Paisaiak, mendia zein itsasoa ditut gustuko, eta horren bitartez argazkigintzarako afizioa sortu zait.

**Zerk motibatzen zaitu argazkia ateratzera?**

Mendiak, itsasoak... ikusten ditudan paisaiak, orokorrean. Horretarako, ilunabarra edo egunsentia aprobetxatzea gustatzen zait. Horixe da argazkiak ateratzeko nire motibazioa.

**Argazkilaritza gustatzen zaigun hiru lagun gaude kuadrillan, bat argazkilaria da. Eurekin ikasi dut gehien**

**Zer da zuretzat argazkigintza?**

Afizio bat. Ikasketetan ez pentsatzeko ihesbide bat. Lagunekin mendira joaten naizenean, adibidez, ahal dudan neurrian argazkiak ateratzeko aprobetxatzen dut. **Momentu oro argazki kameragaz ibiltzen zaren horietarikoak zara?** Ez, gehienetan argazkirako modeloa izaten naiz, kameraren aurrean ipintzen denetarikoa naiz. Bietara nago eroso, objektiboaren aurrean zein atzean.

**Zure ustez zer behar du argazki on batek?**

Zerbait transmititu behar du, argazkia ikusten duen horri zerbait esan behar dio. Dena dela, aurrean dudana paisaia gustuko badut, di-da ateratzen dut argazkia, beste ezeri erreparatu barik.

**Lehenengoz aurkeztu zara argazki lehiaketa batera?**

Bai. Behin animatuko eta saria irabazi! Igual hurrengoan ere animatuko naiz (barrez). Hiru argazki aurkeztu ditut; beste biak argazki kameragaz atera genituen, Dolomitetan. Han ere sekulako argazkiak atera genituen.

## Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren  
Irakaslea/ Jubilatua



**Garbitzaile anonimoak**

Gero eta argiago dago aldaketa klimatikoa errealitate bat dela eta gure artean bereak eta bi egiten ari dela: lehorteak, uholdeak, txingor bortitzak, bero handiak, etb. Eta zer egiten dugu horri aurre egiteko? Batzuek asko, beste batzuek gutxi eta beste batzuek ezer ere ez.

Trumoa denean Santa Barbararekin gogoratzearekin ez dugu arazo larri hau konpontzen, horretarako martxan jarri behar gara eta zezenari adarretatik heldu, eta ez ostrukak egiten duena, burua ezkutatu.

Txalotzekoa da nola elkarte batzuek zuhaitz autoktonoenkin gure basoak berreskuratzeko egiten duten lana. Kontuan izan zuhaitzak aire-garbitzaile naturalak direla.

Beste batzuk kostaldea garbitzeko deiari erantzunez han dabilta inguruak txukun uzten.

Beste askok herriko errekek garbitzen dituzte ibaiari beste lustre bat emateko.

Baneka bat ikusten da osteratxo egiterakoan makurtuta zerbait batzen ari direla eta batzen ari direna ez dira perretxikoak; handik igarotakoak utzitako zaborra batzen ari dira, gero zaborrontziratzeko.

Ez ditut ahazten desastre hau konpontzeko beste ekintza asko burutzen dituztenak.

Baina lan hauek arrakasta eta ingurumenean eragina izan dezaten jarraipena izan behar dute eta denok kontzientzatu, alez-ale multzo handia egiten baita. Ea behingoz oharitzen garen gaixorik dagoen mundu hau sendatzeko denok bat egin behar dugula gu eta gure ondorengoak osasuntsu bizi gaitezen.

Bukatzeko, zorionak eta besarkada handi bat garbitzaile anonimo guztioi.

**SAN ROKE BARRIA DURANGO**

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

**sukia** 946 46 20 41  
Zure etxean zaude Estás en tu casa [www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**KALERATZE prezio bereziak**